

# GUaiXe.net



Etxarriko Udalak  
aurrekontua  
onartu du



Sakanerria >> 6

Sodena enpresatik ateratzen den  
plana onartu ondoren  
Sunsundeguiko langileak  
kaleratzeen zain geldituko dira



Sakanerria >> 7

## Eman euskara elkarri



>> 2, 9-17

## Errausketaren kontrako deia

>> 5

**Bazkarirako zenbaki saritua:**

1.- **2339**

2.- 3200    3.- 1553    4.- 3824    5.- 4511

Zenbaki sarituaren ordena lehenetsiko da  
Deitu 948 564 275 telefonora

# Eskerrik asko!

**Olaztiko rallyan emandako laguntzagatik**

Sakana Motorsport, Maisuenea gaztetxea,  
Netto, Eroski, Hotel Plazaola,  
Miren Ustarroz, Iñigo Aritza ikastola,  
boluntario guztiak eta ikusleak

*bierrik fundazioa*



# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



**Onintza eta Lexuri**  
Gorde inyerrak bikote aurtan bat geyo daka-zubie itzeltzeko ta!! ZORIONAK sorgin pareta.



**Lexuri**  
Udaberriko printzesari zortzi kilo ZORION. Ongi pasa urtebetetze festan.



**Alazne ZORIONAK!!** Bikain pasa dezazula zure urtebetetzean!! Etxekoan partez.



**Lexuri Lazkoz Ruiz**  
ZORIONAK eta muxu pila bat Arbizuko osaba, izeba, lehengusuak Ainetz, Haitz eta amiña Loliren partetik.



**Lexuri Lazkoz Ruiz**  
ZORIONAK potxola astearte-an 5 urte beteko dituzu, egun ona pasa eta muxu haundi bat Lizarragako eta Arbizuko familiaren partetik.



**Lexuri Lazkoz Ruiz**  
ZORIONAK potxola!! Martxoaren 19an 5 urte beteko dituzu!! Espero dugu egun ona izatea. Arbizu eta Lizarragako familia. Muxu asko.



**Jon Arruabarrena**  
ZORIONAK lehengusu!! Aitorren partez.



**Gurutz Goikoetxea Irisarri**  
ZORIONAK ta URTE ASKOTAKO maitia, Urdingo ta Altsuko fami-lian partetik.



**Sugoi Costa Amado**  
ZORIONAK maitia!! Hurrengo martxoaren 20an urtebetxo bat beteko duzu. Muxu asko senide guztien partetik. Jarraitu zaren bezala izaten.



**Eneritz**  
ZORIONAK Eneritz! Pixka bat berandu baina ez zaigu ahaztu! Segi beti bezain jator eta zintzo! Askok maite zaitugu zure Urdaingo familiak eta Oskik!



**Unai**  
ZORIONAK Unai zure anaia Mikelen partez eta etxekoan partez ere.



## marsuak

# 16-21

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

### Musika

**Acapelaendo.** Martxoaren 16an, larunbatean, 20:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **B vocal.**

**Kantagin jazz.** Martxoaren 17an, domekan, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Iñaki Salvador eta Ainara Ortega.**

**Musika eskolako ikasleen entzunaldiak.** Martxoaren 18an, astelehenean, 19:00etan (tronpeta, tronboia, saxofoia eta pianoa) eta martxoaren 20an, asteazkenean, 18:00etan (bateria) Etxarri Aranzako kultur etxean.

### Antzerkia

**Sueño de una noche de verano.** Martxoaren 16an, larunbatean, 20:00etan eta martxoaren 17an, igandean, 19:00etan Irurtzongo kultur etxean. **Irurtzongo antzerki tailerra.**

**Printzea eta ahatea.** Martxoaren 17an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Gorakada antzerki taldea.**

### Zinema

**Ellas.** Martxoaren 17an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Ostegunean emakumezkoak doan.**

**Los miserables.** Martxoaren 17an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Melancolia.** Martxoaren 21ean,

ostegunean, 22:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Emakumezkoak doan.**

### Film laburrak

**La celda, Ahora no puedo eta Pornobrujas.** Martxoaren 17an, domekan, 17:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Mendi irteera

**Madalenaitz.** Martxoaren 17an, igandean, goizez. **Irurtzongo Iratxo elkarteko mendi taldea.**

**Aiako harria.** Martxoaren 17an, domekan, Altsasuko Mendigoizaleak taldearen egoitzatik.

**Atako harana.** Martxoaren 17an, igandean, goizez. **Sakanako ikastolen mendi taldea.**

### Txirindula irteerak

**Txurrukopunta.** Martxoaren 10ean, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 46 km. **Burunda Mendi Bizikleta taldea.**

### Erakusketak

**Post 2013: Myalbum. Bienvenido al reino de la apariencia.** Martxoaren 23ra arte, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean. **Maria Alché, Paco Gomez eta Maider Kuadra.**

**Ura Sakanan.** Martxoaren 31ra arte Irurtzongo Tahonan eta Pikuxarren. **Irurtzongo pintura tailerreko emakumeek eginak.**



### Hitzaldiak

**Erabakitze eskubidearen aldeko bertso-hitzaldia.** Martxoaren 19an, astearte, 20:00etan, Etxarri Aranzako Derry tabernan. Hizlaria: Angel Oiarbide. **Bertsolariak: Jon Maia eta Amets Arzallus.**

**Independentziaren ondorio ekonomikoak.** Martxoaren 21ean, ostegunean, 20:00etan Etxarri Aranzako Kultur etxean eta 12:00etan Hizlariak: Txente Rekondo eta Oskar Arantzabal Iraeta.

### Tailerrak

**Guraso eskola.** Martxoaren 18an, astelehenean, 15:20tik 17:00etara, Irurtzongo eskolan.

### Bestelakoak

**Auzo-konpost sistemaren aurkezpena.** Martxoaren 16an, larunbatean, 10:00etan Etxarri Aranzako Kultur etxean eta 12:00etan Mikel Arregi plazan kaxetaren mustutzea.

**Hiritik herrira topaketa.** Martxoaren 16an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Etxarri Aranzako kultur etxean. **Auzolan ekimena.**

**Ondarearen bilketa.** Martxoaren 17an, domekan, 17:30ean Urdaingo auzoan.

**Atez ateko bilketa puntuen proposamena.** Martxoaren 20an, asteazkenean, 19:00etan Urdaingo udaletxean eta martxoaren 21ean, ostegunean, 19:00etan Uharte Arakilgo udaletxean.

### Deialdiak

**No a la imposición de la incineración en Pórtland. Herritarren hitza errespetatu.** Martxoaren 16an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Nettoko aparkalekutik abiatuta.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Martxoaren 17an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.** Martxoaren 18an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

**Lomce legea azalpenak.** Martxoaren 20an, asteazkenean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea elkartearen. **Sakanako guraso elkartearen asanblada.**

**Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. 197/2006 doktrina eten. Ines, Poxtiña, Bautista... askatu.** Otsailaren 20an, asteazkenean, 20:00etan



## Korrika 18

### Irurtzun

**>> Martxoak 15, ostirala**  
Korrika amaitzerakoan txokolataa Iratxo elkartearen.  
16:00etan Korrika txikia.  
19:00etan Zunba korrika dantza.

### Irañeta

**>> Martxoak 16, larunbata**  
Korrika bazkaria elkartearen.  
Arratsaldean korrika txikia.

### Uharte Arakil

**>> Martxoak 16, larunbata**  
**11:30ean** Korrika txikia.  
**12:30ean** Txikiendako gosaria plazan (edo frontoian), jokoak ...  
**13:00etan** Asto kaka.  
Arratsaldean futbito txapelketa.  
**21:00etan** Parrillada udaletxean.

### Bakaiku

**>> Martxoak 16, larunbata**  
**21:30ean** Bertso afaria: Alaia Martin eta Julen Zelaieta.

**>> Martxoak 17, domeka**  
**17:30ean** Korrika txikia Iturmenditik Bakaikura. Ondoren txokolata eta Marikalanbreren ipuin kontaketa.

### Olatzagutia

**>> Martxoak 17, domeka**  
**19:00etan** Kantagin jazz: Iñaki Salvador (pianoa) eta Ainara Ortega (ahotsa)  
**19:00etan** Kultur Etxean.



**IKASLEAK ESLOVENIAN**: Azken astea Esloveniako Ljubljana Gimnazija Vic zentroan eman dute Goierrri Eskolako 20 ikaslek, sakandarrak gehienak. Trukaketa

horren bitartez ikasleek beste lan-errealitate batzuk ezagutu dituzte, gerora lan munduan sartzeko baliagarriak izanen zaizkienak.

# ezkaatza >>

## >> SAKANA



Oraindik ere emakumeen eskubideak aldarrikatu behar direla nabarmendu zuten.

## “Sokari indartsu tiratzeko garaia da”

Martxoaren 8an, Emakumearen eguna, Sakanako Bilgune Feministak eta Altsasuko Feministak manifestazioa egin zuten Altsasun. Sistema kapitalista patriarkala egoera sozioekonomikoan atzera pausua eragin dituela salatu zuten feministak; hortaz, emakumeek krisi ekonomikoan ematen diren murrizketa eta

eskubide urraketan eragin zuzena jasotzen dutela kritikatu zuten.

Herritarren artean beldurra sortarazten du sistema kapitalista patriarkalak sortutako krisiak; dena dela, feministek argi dute zein den irtenbidea: “beldurri aurre egiteko bakarrik ez sentitzea eta elkartzea eta kole-

tiboki lana egitea da helburua”. Krisi ekonomikoak gizon eta emakumeen arteko berdintasunak gaitzetzeko atzerapausoak ekarri dituela gogorarazi zuten: indarkeria sexista ekiditeko baliabideen murrizketa, besteak beste. Eredu alternatiboa mar txan jartzeko gonbitea luzatu zuten feministek.

## >> Langabezia, 2.000tik gora

Otsailean 49 pertsona gehiagok eman zuten izena enplegu bulegoetan

Agorriletik gora eta gora igotzen ari da langabeen kopurua ibarrian. 2.021 sakandar izena emanda zeuden otsaila akaberan Nafarroako Enplegu Zerbitzuan. Gizonezkoak 1.017 dira (%50,32), aurreko hilean baino 44 gehiago. Emakumezko langabeak, berriz, 1.004 dira (%49,68), 5 gehiago. Adinari dagokionez, langabetu gehienak 25 eta 44 urte artean dituzte: 989 (%48,94; aurreko hilean baino 25 gehiago). 45 urtetik gora eta lan bila daudenak 810 sakandar dira (%40,08; 22 gehiago). 25 urte baino gutxiago duten eta enplegu bulegoan izena emanda 222 sakandar daude (%10,98; 2 gehiago).

Sektoreei dagokionez, lan eskaintzen erdia, %50,57, zerbitzuan aritzeko da (1.022; aurreko hilean baino 11 gehiago). Industrian lan egin nahi lukete langabeen %34,44 (696; 35 gehiago). %8,02 prest dago eraikuntza arloan aritzeko (162; 3 gehiago). Lehen sektoreak, berriz, eskaeren %1,83 jaso du (37; berdina). Azkenik, aurretik lanik

egin ez eta lan bila dabiltzanak %5,15 dira (104; berdina).

### Bestelako datuak

Gaindegiak, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak azaldu duenez, Sakanan gizarte segurantzaren izena emanda dauden kopurua %23,42 egin du behera (2.011) 2009 urtearekin alderatuta. Iturri beraren arora, ibarrian enplegu gehien sortzen duten enpresak, %60,2, atzerriko enpresen filialak dira. Gaindegiak azaltzen duenez gutxi dira, baina lan-



Beharginak lanean.

Langabezia udalerrira		
Udalerrria	Guztira	Aldea
Altsasu	998	50
Arakil	90	3
Arbizu	75	-2
Arruazu	4	0
Bakaiku	22	3
Ergoiena	14	-2
Etxarri Aranatz	216	3
Irañeta	7	-1
Irurtzun	202	1
Iturmendi	16	-2
Lakuntza	104	-2
Olatzagutia	150	6
Uharte Arakil	64	-8
Urdiain	34	1
Ziordia	25	-1
<b>Guztira</b>	<b>2.021</b>	<b>49</b>

gile asko dituzte. Espainiako Enplegu eta Gizarte Segurantzaren datuak aztertu ondoren jakinarazi ditu datu horiek.

### Enpleguaren alde, lan erreformaren kontra

Sakandar ugari joan ziren larunbatean Iruñera, langatazka duten Nafarroako 58 enpresa batzordeek deitutako manifestazioan parte hartuz. Enpleguaren suntsiketa gizartearen arazoa dela aldarrikatu zuten. Nafarroako Gobernuari eskatu zioten kon-tuan hartzeko bere politikei ezezkoa ematen dion gizartearen eskaerak. Sundeguioko Oskar Telletxeak esan zuenez “langileok izan behar dugu protagonistak langileon eskubideen defentsan”.

**PPSOE,**  
**Euskal**  
**Telebista**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

**Berria erosi taldea**

**ANTSOTENEA**  
denda

Makailua  
Konjelatuak

Tel.: 948 500 388  
Foru enparantza 1  
**IRURTZUN**

**Sorgiñak**  
taberna

**LAKUNTZA**  
948 576 357

**CONSTRUCCIONES ALZATE S.L.**

**ALZATE**  
**ERAIKUNTZAK**  
S.L.

Zubeztia 21, Altsasu  
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600  
www.construccionalazate.com

**JUANLUZENA**  
**SAGARDOTEGIA**

urtarriletik maiatzera  
tel. 948 604 571

**ODERITZ**

**kaxeta**  
liburudenda / paperdenda

Zure bertako opari denda

Fax Zerbitzua  
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477  
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com  
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 · ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16





Eduardo Galan

## Splash!!!

Bizitza, une edo momentu txikiz egina dago, gure barnean, hala-ko edo holako zirrara, emozio eta sentimenduak sortzen dizkigutenak. Egunean zehar egoera berezi anitz bizi edo gure aurrean irudi eta ikuskizun asko izan ditzakegu, baina askok ez dute aztarnarik uzten gure buruan, gure memorian. Kontrakoa ere gerta dakiguke, eta holakoak, betiko gogoan geratzen dira indartsu. Momentu bereziak dira horiek.

Askotan ere, badira pertsonak

gizartearengan, jendetzarengan, pertsona multzo handiengan milaka eta milaka harrera harrapatuz kapazak direnak harrera izugarria dutenak. Hor ditugu, batzuk aipatzeagatik, Mandela, Messi, Bono, Shakespeare, Coco Chanel, Stéphan Hesell... Zerbait berezia dute, distira bitxi horizurrerrenik eta beraien inguruan momentu ahaztezinak bizi ditzakegu eguneroko arazo gehienak alde batera utziz.

Aurreko batean, telebista aurrean, holako bizipen magiko bat

izan nuen eta nirekin batera beste lau miloi pertsona, komunikosko-unibertsal horretan, 14 segundoz, "distiradun" horietakobat, gure emozio eta arreta gutzia harrapatu zituenak.

Bere bolantezko bainujantziaz ausardiaz puztuta, bere ile-luze beltzarana airean, tranpolinetik poliki-poliki Luis XVI.a gilotinarantz harro-harro zihoan bezala, Faletak, bere sudurra babestuz, 3 metrotik ez, 5 metrotik baizik, historiaren analetara pasako den jauzi urriena egin

zigun zuzenean.

Telebista aurrean bizi izandako une handi, barregarri eta danteskoenatariko hau izango dut gordeta betiko gogoan, baina momentu horietan Barcenak, Can-eko dietaz, Mediterranea de Catering-ez, Sunsundegiz, etxe kaleratzeez... ahaztu ginen lau milioi pertsona. Handia Faletak, handia.

**Kexak, iritziak eta iradokizunak:** dudugalan@hotmail.com

## astekoa

## barrutik kanpora

### Hondakinak: zabor ala baliabide?

Zaborrak ingurunearekiko baita arazo energetiko, sozial eta ekonomikoan iturri dira. Gaur egungo gizarteak, zaborren auzia sortzen duten kutsadurarekin, usain txarrekin, baita zabortegien betetze eta asetzearrekin lotu ohi du besteak beste.

Hondakinen kudeaketa mantentzeko gero eta handiagoak diren gastu ekonomiko eta energetikoekin topo egiten dugu. Gastu hauei inplikaturik dauden administrazioek eta batez ere populazioak aurre egin behar die. Hondakinen sortzea ere xahutze eta gain-kontsumoarekin lotzen da. Azken hau, baliabide natural mugatu eta amaikoren agortzearekin estu lotuta dagoelarik.

Tratamenduari dagokionez, zabortegien, biometanizazio planten edo erraustegien instalazioek sortzen dituzten arazoak nabariak dira; jasaten dituzten inguruko populazioetan ondorioak ez dira inoiz oharkabean geratu. Gauzak horrela, kudeaketa modu desberdinak eztabaida sozial eta politikoen iturri bilakatu dira. Lege berriek zabor biltzetan tratamenduek ingurunearekiko errespetu gehiago izan behar dutela exijitzen dute. Arau hauek exijentzia berriei loturiko biltza moduetara egokitu beharrean daude, banaketa egoki baten ostean, berrerrabiltzen, birziklatzen edo sortzen ez ditugun zaborren ehuneko handitzea.

Sustrai Erakuntzatik gure arazoak aukera bihurtzeko apustua egiten dugu. Kontsumitzen ditugun ondasunak baloratzen ikas ditzagun. Gure hondakinak berrerrabil daitezkeen ondasun bilaka ditzagun konposta egiteko eta amalurrari berak emandakoa itzultzeko. Ez ditzagun zabortegietara bota edo erraustegietan erre, ez baititugu horrela kutsadura arazoak konponduko.

#### Sustrai Erakuntza

## hara zer dien

### Aita bat eta ezgaituaren pertsonen gaineko irakaskuntzak

Ezgaitasunean, bere adibidearekin hezten den aita goretsi nahi dut. Gure familian oso pertsona garrantzitsua ezgaitasunarekin egon da eta nik ezaguera dudanez gero, beti gure bizitzetan egonda. Atzera begiratzen dudanean gure aitaren eta gure familiaren arteko hurbiltasun hori egiten zuen.

Oroitzen dut, batzuetan, krikiak ematen zizkiola igandetan, nire aitaren txantxekin pozik jartzen zuenean, gurekin hainbeste jaten zuen (orain krisi epileptikoak zirela badakit)... Gogoratzen dut ere, nire lehenengo jaunartzean, bera nire ondoan, aitona-amonaren urrezko ezkontzan (argazkia ikusten dudane-

an, bere aulki zabalean eta nire aurpegi zorionsua, eserita nengoelako, hain normala). Urteak aurrera joan ahala hazten joan zen eta are gehiago bere ezgaitasuna, baina nire aitak igandero berarekin eta bere arrebarekin bermuta eta olibak hartzen zituen, biak hil arte.

Oroipen hurbil hori hor zego-

en, baina norberaren etxean gertatzen denean, familia barruan, modu hobereanean onartu ondoren (erremediorik gabe!!!!) poliki-poliki aita eta senide ezgaituaren bizipenak etortzen dira.

Eta liburuetan idatzita ez dagoena, inongo profesionalak azaltzen ez dituenak, era naturalean ateratzen da: maitasuna, tratua berezia eta ikusi eta ikasitakoa. Nire aitaren oinordetzan jaso dudana onena izan da, nire aitak senide ezgaitu batekin egiten zuen bezala, tratatzeko giza irakaskuntza.

#### Sakanako ezgaituaren elkartea

## gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

gutunak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

#### Ez zaitetz espaloitik jaitsi

Itziar Claver Herrera eta Haizea Ramirez de Alda Pozueta, Altsasuko Euskal Herrian Euskaraz

Zein da gaur egun euskaldunok euskararekiko duzuen jarrera? galdetu zidan euskararen inguruko erreportaje bat egitera etorri zen galiziar kazetari batek. Erantzuna pentsatzen ari nintzela, hara nola izeba-osabek 70. hamarkadan Bahametakoa Irletara egindako bidaiatik bueltan

kontatutakoa etorri zitzaidan burura:

Bertako biztanle beltzen ezagarririk liluraturik uzteaz gain, zera kontatzen zuten: espaloitik ttipi-ttapa ibiltzen zirenean, eta oraingoraino paretik zetorrela konturatu baino lehen, beltzak espaloitik jaisten zirela eurei bidea irekitzeko asmoz.

Hasiera batean izeba-osabek gizalege, errespetu, ikurtzat hartu zuten. Baina gertatzen zena behatuz, konturatu ziren espaloitik soilik beltzak jaisten zirela,

eta zurien aurrean soilik. Beltzek beste beltzen aurrean ez zuten horrela jokatzeko. Zuriek beltzak baino gehiago zirela sinesten zuten, errespetu berezia merezi zutelako.

Hona hemen neure buruari egindako galderak: gurean, erdal-dunen aurrean, euskaldunak espaloitik jaisten al gara? Ez al da horrelako zerbait gertatzen?

Dendara sartzean zein hizkuntzatan egiten dut nire lehenengo hitza? Espaloitik jaisten naiz?

Ezezagunei zuzentzean, zein

hizkuntzatan egiten dut nire lehenengo hitza? Espaloitik jaisten naiz?

Ezezagun batek nire galderari "e?" erantzuten badio, zein hizkuntzatan jarraitzen dut? Espaloitik jaisten naiz?

Euskaraz egin ondoren gaztelaniaz erantzuten didatenean, zein da nire jarrera? Espaloitik jaisten naiz?

Erdarek euskarak baino errespetu handiagoa merezi dute?

**EZ ZAITEZ ESPALOITIK JAITSI!!! EUSKARAZ BIZI!**

## Guaixe

**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net  
**GUAIXE:** Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net  
**PUBLIZITATEA:** Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

**Erredakzio burua:** Alfredo Alvaro Igoa  
**Erredakzioa:** Maider Betelu Ganboa  
**Maketazioa:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**Laguntzaileak:** Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso  
**Zuzentzailea:** Garazi Garzia Mauleon

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 4.500 ale

#### LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
s a k a n a



**LANZ, UDALERA BUELTRAN:** Santi Luceño zinegotziaren kargua Cristobal Lanz beteko du. Ostiralean egindako bilkuran udal idazkariak jakinarazi zuen NaBai

2011ko zerrendan bosgarren zen Iñaki Miguelek uko egin ziola kargua hartzeari eta 6.a, Lanz, izanen da zinegotzia.

# sakanerria >>

>> **Urdiain**

## Herriko ondarea jasotzeko deia

**Domekan, 17:30ean, auzoan**

Urdiaingo iraganaren berri, ondarea jasotzeko gonbitea da biharkoa. Auzolanean ondare naturala, materiala eta ez materiala, eta tokiko ezagutza jaso nahi da, eta horretarako, ezinbestekoa da urdiaindarren laguntza, "Urdiaingo bizilagunek inork baino hobe

ezagutu dezakeelako iragana".

Sakantzen Sareak sustatuta sortuden Sakanako Ezagutzaren Gizarte Funtzak luzatu die gonbitea urdiaindarrei, Urdiaingo Udalarren eta Sakanako Mankomunitatearen laguntzaz. Funtz horrek ibarrean "inurri lana" egin nahi du, "tokiko ezagutza modu sistemati-

koan identifikatu eta jasotzeko, eta ondoren, guztia Sakanako garapen prozesuaren zerbitzura jartzeko; berreskuratuz eta birbalarizatuz".

[sakantzensarea@gmail.com](mailto:sakantzensarea@gmail.com)

Harremanetarako helbide horretara ere jo daiteke.



Sakanako udal hautetsiek ere manifestaziora deitu dute.

**SAKANA**

## Errausketa egitasmoa gelditzea eskatzeko deia



**Gaur, 18:00etan Aitsasuko Nettoko aparkalekutik manifestazioa abiatuko da**

*No a la imposición de la incineración en pórtland. Herritarron hitza errespetatu. Lelo hori du biharko 3 Mugak Batera platafor-*

mak antolatutako manifestazioa. Hondakinak kudeatzeko errausketa baztertzeko eta bestelako metodoen alde egitea eskatuko dute gaur manifestariek. Hainbat talde ekologistek bat egin dute deialdiarekin. Baita EHNE,

UAGA, ELA eta LAB sindikatuek. Alderdiei dagokionez, Aralar, Bildu, EAJ-PNV, Equo, Ezker Batua-Berdeak, Geroa Bai eta IUN bat egin dute deialdiarekin. Baita hainbat kultur eragilek eta elkartek.

gertutik >>

**Amaitu Iparragirre eta Oihana Arrondo**

**3 Mugak Batera**

**Nafarroako Gobernuak porlandegiaren egitasmoari argi berdea eman zion. Zer egiteko zehazki?**

55.000 tona hondakin erretzeko baimena eman dio Portlandi, gehien bat hiri hondakinetatik sortutakoak, pneumatikoak, araztegi-takto lohiak, plastikoak, e.a. Jarduera hau burutu ahal izateko Ingurumen Baimen Bateratu berria eman die, labeak hondakinak erretzeko aprobetxatuko dituen instalazio berriak eta hondakin kudeatzaile moduan inskribatu du. Hori egiteko, UGPS baten bidez Olaztik Udala eta instalazio hauek debekatzen dituen eta 1998az geroztik indarrean dagoen araudia saihestu ditu. Eta horrek esan nahi du inguruko eskualdeetako herritarren boron-

datea ez dutela aintzat hartu, jarduera horren kontra azaldu diren arren, lehenago, Nafarroako beste eskualde batzuetakoak agertu ziren moduan.

**Epeak beteko balira noiz hasiko luke jarduera hori enpresak?**

Espero dezagun inposizio hau ez betetzea. Gizartearen oposizioa kontuan hartu gabe, eta herritarren borondatearen kontra ezer egingo ez zuela hitza eman bazuen ere, hala eta guztiz ere, aurrera jarraitzea erabakiko balu, instalazioak hila-bete gutxitan prest leudeke. Ondoren, beste zementu fabrika batzuek egin dutena jarraituz, beste hondakin batzuk eta kantitate handiagoan erretzea eskatuko luke. Valentzia aldeko zementu fabrikek bost aldiz handitu dute erre beharreko hondakin kopurua. Toledokoan, lau aldiz gehiago erretzeko baimena eskatu dute.

**Erabaki horren kontra jo duzue?** Helegitea jarri diogu Portlanden Ingurumen Baimen Bateratuari,

10.000 sinadura baino gehiago bildu ditugu, alegazioak aurkeztu ditugu... eta Nafarroako Gobernuak dena baztertu du. Azkenean, basakaria hau geldiarazteko bide bakarra herri mobilizazioarena dela uste dugu.

**Ondoren epaitegiek gobernua-  
ren Nafarroako Hondakin  
Kudeaketa Plan Integrala atzera  
bota zuten. Espartza kontseila-  
riak esan du epaiak hainbat arlo-  
tan arrazoa eman ziola gober-  
nuari.**

Nafarroako Gobernuari inportazio gauza bakarra, hondakin arazoa gainera kentzea da, orain arte ez duelako bere egin beharra bete eta labeetan erretzea beste irtenbiderik ez duelako aurreikusit. Eta bere hondakin planean gauzatzeko bat "ahaztu" egin zitzaion, ez zuten hondakinak erretzeko instalazioen kokalekua zehaztu, legeak behartzen duen moduan. Ez zen zehaztera ausartu. Orain auzitegiak, bazekiena, baina ez lehen ez orain egiteko prest ez zegoena agindu dio: esan dezala

non erre behar diren hondakinak. Eta Auzitegi Gorenaren aurrean helegitea jarriz erantzun du, atzerabiderik gabeko politika aplikatuz eta FCCren zementu fabrikari Balioztatze Plantaren (errauskailua) eginkizuna emanez. Beraz, Portland izango da jarduera hori burutzeko instalazioen kokalekua erabakiko duena, nahiz eta auzitegiek hori legez kanpoko dela erabaki duten. Auzitegien erabakia izugarritzko porrota izan da Nafarroako Gobernuarendako, honek errausketaren aldeko apustua egin baitzuen.

**Zertan ematen dizue zuei arrazoa epaiak?**

Hondakinak erretzeko instalazioen kokalekua ezin da esku pribatuetan utzi. Kontuan hartu behar da, gainera, Nafarroako Gobernuak eta Portlandek kolaborazio hitzarmena sinatu dutela eta bertan jasotzen diren helburuen artean NHKPIko hondakinak porlandegira bideratzea aurreikusten dela. Hori ez dago planean jasoa eta, gainera, horrek aurreikusitako

errauskailuaren neurriak berraztertutako beharra ekar lezake. Beraz, Portlandi ezin zaio NHKPIan zehazten ez diren instalazioetan hondakinak kudeatzeko baimenik eman.

**Nafarroako Hondakin  
Kudeaketa Plan Integrala eta  
porlandegiaren egitasmoa lotuta  
daude?**

Erabat. Lehen aipatu ditugun arrazoiengatik, ezin da Portlandek erre nahi dituen neurriko hondakin kopuruak erretzeko baimenik eman, jarduera hori burutzeko instalazioak eta kokalekua NHKPIan argi zehazturik ez badago.

**Zein alternatiba daude?**

Beste hondakin kudeaketa eredu batzuk; hondakin gehienak berreskuratzea ahalbideratuko duten bilketa ereduak. Inguruko komunitate batzuetan errausketa eta energia balioztatzea debekatua dago. Eta beste batzuetan, erretzeko baimena jaso duten hainbat hondakin, % 100ean birziklatzen dira.

>>osorik [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

ZERGATIK UKO EGIN CITROËNEN ESPERIENTZIARI?

### DISKOEN, BALAZTA-PASTILLEN ETA CITROËN MOTELGAILUEN OPERAZIOA

**%30** ordezko piezetan\*

[www.citroen.es](http://www.citroen.es)



CITROËN prefere TOTAL

(\* Promoziora atxikitako CITROËN zerbitzu ofizialean eskaintza balagarria. Indarrean dauden beste eskaintzekin ez metagarria. Kontratuz kanpoko argazkia. Galdetu zure CITROËN zerbitzu ofizialean promozioan dauden piezen zerrenda.

2013/03/04TIK 2013/05/04RA.

**CITROËN**

CRÉATIVE TECHNOLOGIE



>> Etxarri Aranatz

# Aldapasoroko sareak 2014an berrituko dira

**Udalak 1.749.860,55 euroko aurrekontua onartu zuen astelehenean Bilduren eta NaBairen aldeko eta PPren kontrako bozekin**

Joxi Bakaikoa alkateak jakinarazi digunez, Nafarroako Gobernuarekin akordioa lortu du udalak eta Aldapasoroko sareak berritzeko lanak 2014an egingen dira. Hasiera batean joan den urtean egitekoak ziren. Halaxe aurrekusi zuen udalak berak bere aurrekontuan, baina Nafarroako Gobernuaren murrizketengatik ezin izan ziren lan horiek egin eta atzeratu egin dira.

Arrazoi beragatik pasa den urtean ere ezin izan ziren Utzu-



Hilerrirako bidea.

bar Txikiko lanak egin. Hainbat urtetan banatuko dira han egin beharreko lanak. Hasteko, aurren, sareak eta espaloiak jarriko dituzte. Kanposantu inguruko lan horietara udalak 180.000 euro bideratu ditu aurtengo aurrekontuan.

Alkateak azaldu digunez, udalak dituen diru sarrerak ez dute kontu handitan sartzeko biderik ematen. Hala ere, ahalik eta kontratazio gehien egiteko asmoa du udalak, bai babestutako enplegu programaren bidez baita Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren laguntzaren bidez ere. Bestalde, Nafarro-

Beste partida batzuk	
Kultur programazioa	46.000
Antzoki sarea	14.000
Musika eskola	126.000
Festak	78.000
Frontoi/Futbol zelaiko argindar koadroak berritzea	4.000
Ur eta argindar kontsumoaren monitorizazioa	17.000
Parte hartzea (beste sail batzuetan zeharkako lerroa da)	1.000

ako Gobernuak diru-laguntzak kendu dituzenez, abeltzaintza azpiegiturretan eta baso-lanetan ezer gutxi egiteko aukera izanen du udalak. Hala legoke errekek hobetzeko proiektua ere (16.584 euro).

>>

## Auzo-konposteko kaxeta mustutzeroa

Sakanako Mankomunitateak hondakinak biltzeko sistema ezarri behardu eta Etxarri Aranatzko Udala auzo-konpostari bultzada ematea erabaki du. Bierakundeek gaur hainbaten artean auzo-konposta

egiteko erabiliko den aurreneko kaxeta mustuko dute. Eguerdian izanen da, Mikel Arregi plazan. Auzatea, Joseba Beltzak eta Eneko Lazkoz bertsoariak kaxetari jarritako bertso berriak eta konposta egi-

teko saio praktikoa izanen da.

Aurretik, 10:00etan, kulturetxean izanen den hondakinak biltzeko sistemaren aurkezpena egingen da. Etxarri Aranatzko Udala Franzisko Saint Philbert herriko eremuan oinarritu da auzo-konposta jartzeko eta aurkezpena Daniel Roux konpost egile maisua izanen da azalpenak ematen.



Elurretan jaso dute kaxeta.

>>

## Erabakitze eskubidea eta independentzia kantu eta hizketa-gai

Etxarri 2012+1 ekimenak Euskal Herriaren erabakitze eskubidearen aldeko saioa antolatu du aste-arterako. Derry tabernak, 20:00etan, bertso-hitzaldia hartuko du. Kantuan Jon Maia eta Amets Arzallus bertsolariak izanen dira. Hizlari eta gai-jartzaile, berriz,

Angel Oiarbide, *Gazta zati bat* dokumentaleko sustatu zuen Nazioen Mundua ekimeneko kidea. Auzatea izanen da.

Ostegunean, berriz, Etxarri 2012+1 ekimenak antolatuta, Karriestu elkartearen Txente Rekondo eta Oskar Arantzabal

Iraeta izanen dira hizlari. 20:00etatik aurrera independentziaren ondorio ekonomikoak izanen dituzte hizpide. Esaterako, Europa barruan edo kanpoan gelditu kolitzatekeen Euskal Herria, pentsioekin gertatuko litzatekeena, Euskal Herriko ekonomiaren

indarguneak eta ahulguneak... Bestalde, larunbaterako bigarren sinadura festa antolatu zuen Etxarri 2012+1 ekimenak. Etxarriaren ahalik eta sinadura gehien jaso nahi ditu ekimenak, bultzatu duen autodeterminazio eskubidearen aldeko galdeketa babes handiena lor dezan. Asko izan ziren larunbatean udaletxetik sinatzera pasa zirenak. Eta oraindik ere, aste-gunetan, pasa daiteke.

>>

## Etxarrik Hiritik Herrira topaketak hartuko ditu

Auzolan ekimenak irailean Altsasun antolatutako II. topaketetan sortutako lan taldeetako batek Hiritik Herrira izena hartu zuen. Hark antolatu du biharko Etxarri Aranatzko topaketa. Lurren kolektibizazioen inguruan egun osoko topaketa antolatu dute. Orain arteko esperientzietatik ikasi, kolek-

tibizazio berrak eta ezaketen tresna eta estrategiak aztertu (bide ins-

tituzionala, lurren okupazioa, erosketa edo alokairu kolektiboak...),

informazioa trukatu... Topaketak bigarren zati bat izanen du, heldu den asteburuan Beizaman izanen dena. Han Hiritik Herrira kontzeptuaz ariko dira hizketan. Migrazio fenomenotik harago, Auzolan ekimeneko kideek diote "hiriari dagozkion baloreak pentsatzea eta hauek iraultzea da gure Hiritik Herrira-ko bidea eraikitzea".

### Etxarriko egitaraua

**10:00etan** Herri lur eta komunalen egoera Euskal Herrian.  
**11:30ean** Herri lurrak (berr)eskuratuz. Esperientziak: Aranzadi auzolanen (Iruñerria);

Ipparraldeko Lurra ekimena; Zeraingo herria eta Galdakaoko ortu okupatuak.  
**14:30ean** Bazkaria.  
**16:00etan** Lurrak kolektibizatzeko estrategiak eta tresnak.  
**18:00etan** Informazio biltegia. Lur eta baliabideen mapa.

**Guaixe KOMUNIKAZIOA eskaintza**

**AS NEURRIKO ESKUORRIAK**

**500 FLYER 145 €**

**1.000 FLYER 170 €**

**BAXERRI ERRETEGIA**

**AS NEURRIKO ESKUORRIAK**

**500 FLYER 145 €**

**1.000 FLYER 170 €**

**3º CURSO DE TROMBÓN E INICIACIÓN AL TROMBÓN JAZZ**

**Itzulpen Zerbitzua**

**Euskaratu zure izen-abizenak**

**Amaya**  
Okindegi-gozotegia

**ARAIA** 945 314 572

**ALTSASU**

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amara supermerkatua Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...

**ALTSASU**

**OLAZTI**  
948 468 755

**ETXARRI**  
948 461 660



## SAKANA

Estrasburgora  
begira

Martxoaren 20an, asteazkenean, 20:00etan Arbizuko plazan Herrirak kontzentrazioa deitu du

Heldu den asteazkenean Europako Giza Eskubideen auzitegiak Ines del Rionen auziaz erabaki bat hartuko du. 197/2006 edo Parot doktrina ezarri zioten Tafallako presoari. Eta horren ondorioz zigorra beteta 2008an kalera atera beharrean beste 9 urtez espetxean egon behar zuela ebatzi zuen epaitegiak. Presoaren helegitea Europako auzitegiari iritsi zen eta pasa den urteko garilaren 10ean, eta Espainiak ezarritako dotrina, Europako Giza Eskubideen Konbentzioa urratzen zuela ebatzi zuen. Espainiak helegitea jarri zuen eta heldu den asteazkenean ebatziko dute.

Del Rionen egoera berean beste 72 preso daude. Horien artean Jesus Mari Mendinueta eta Bautista Barandallak sakandarrak. Herrira mugimendutik adierazi dutenez, Espainiak preso politikoaren giza eskubideak urratzen ditu sakabanaketa, inkomunikazio eta bakartze erregimen berezietan; "milaka pertsonen sufrimendua eraginez eta Euskal Herrian abian den konponbiderako prozesua oztopatzeko helburuekin". Herrirako kideek azaldu dutenez, "euskal gizartearen gehiengoak bat egiten du salbuespen neurri hauek gaitzitezen beharrek".

Herriratik Europara mezu bat helarazi nahi dute: Giza eskubideak, konponbidea, bakea.

197/2006 doktrina indargabetzea ezinbestekoa da euskal preso politikoek ezartzen zaien salbuespeneko espetxe politikari bukaera emateko. Mezuza gizartearen babesaz zabaldu nahi dutenez, kontzentrazioa deitu dute asteazkenean Arbizuko plazan. Espainiako Gobernu Ordezkariek mobilizazioa debekatu egin du, baina Herrirak helegitea jarri du eta deialdiari eutsi dio. Ostiralean, 22:00etan, bestalde, bideo emanaldia izanen da Arbizuko udaletxean.

## &gt;&gt; Altsasu

## Sunsundeguin, kaleratze zerrendaren zain

Enpresa proiektuak aurrera segitzen du Nafarroako Gobernuak UGTrekin eta independentearekin lortutako akordioari langileek babesa eman ondoren

Lan erregulazioan dauden langileak pixkanaka lanera bueltatzen ari dira. 6 txasis lantegian daude

Ostiralean akordioaren berri eman zuten Iruñean Nafarroako Gobernuak, Sunsundegui zuzendaritzak eta UGTk. Ondoren tentsio handiko egunak izan ziren astelehena eta asteartea Sunsundeguin. Langileak astelehenean akordioaren alde egin zuten: 232 langiletik 114 alde, 64 kontra eta 4 txuri izan ziren. UGTk bozketaren emaitza onartu zuen.

ELAk eta LABek ez, ordea. ELAtik langileei egindako "xantai handia" salatu zen. "3 eguneko epean halako erabakirik hartu" eta planean jasotako hainbat punturekin kritiko azaldu ziren. LABekoek "plana enpresa batzordearen gehiengoaren bizkar negoziatu zela salatu zuen. "Plana babesten duen gutxiengo sindikalak asanblada behartu eta egunetan bertan erabakiarazi: hau edo ezer ez planteamendua egin zuen".

UGTk argi adierazi zuen: plana sinatu, proiektuari jarraipena eman edo 400 lanpostu desagerrarazi. Presioa langile eta haien ordezkariek nabaritu zuten astearte goizean. ELAk bere afiliatuak bildu zituen. Sinatzeko eskatu zuten



Sodenako Valdivieso, Goikoetxea kontseilaria, Murillo zuzendariak eta UGTko Riosek martxoaren 8ko aurkezpenean.

gehienek. ELAko kideek adostu zuten haietako batek sinatzea, plana aurrera egiteko. "Sinadura bakarra, kaleratzeak egiterakoan garbiketa ideologikoa egiten badute kaleratze bidegabeak salatu ahal izateko". Gainera, kaleratzeen antolakuntza eta arrazoi ekonomikoak argudiatzeko eskatu du ELAk.

Hala bada, asteartean, 13:00etan ELAko kide batek bere sinadura gehituz akordioari, hala enpresa batzordearen gehiengoak lortuz. "Gobernuak enpresa ixteko aitzakiarik izan ez dezan". UGTk pozez hartu zuen plana aurrera atera izana: "Sunsundegui errendako oso berri ona da". UGTkoek aitortu dute orain "zailtasunak" etorriko direla, baina "planak enplegua

eta enpresaren bideragarritasuna bermatuko du".

## Bideragarritasun plana

Lortutako akordioaren arabera, Sodenak enpresa publikoak Sunsundegui utziko du. Jabetza zuzendaritzaren (%51) eta langileen esku (%49) geldituko da. Akordioa iragarri zuten unean bertan jakinarazi zuten kaleratzeak egon beharko zirela, bestela ez zuela aurrera egingen. 65 kaleratze izanen dira: 44 tailerretan, 21 zeharkakoa eta staffekoa. ELAk eta LABk publiko egin arte ez zuten haren berririk izan.

Nafarroako Gobernuak Sodenak bermatzen zuen zorrak arduratuko, 15 milioi euro inguruko. Gai-

nerako zorraren inguruan, enpresaren jabe berriak bideragarritasun-planean hura negoziatzea jasotzen da. Gainera, zuzendaritzak eta langileek milioi bat euroko ekarpenak egingo dituzte. Bestalde, planean jasoa dago gobernuak, gehienez, 4,5 milioi euroko laguntza ekonomiko emanen diola.

Jose Ignacio Murillok azpimarratu zuenez, Sunsundegui, alde batetik, merkatuak aitortu dion kalitate handiko produktua du eta hura erosteko bezeroak ditu, eta, bestetik, aurrera egiteko erronkaren aurrean dago. "Akordio-hasierra hau lehen urratsa da, baina ez irtenbidea" adierazi du, eta langile guztien inplikazioaren eta nazioartekotzearen alde agertu zen.

LAB: beldurraren  
ondorioa da

"Ez da alternatiba bat. Ez du proiektuaren etorkizuna bermatzen. Soilik Sodenak eta UPN ez direla enpresa itxiko dutenak" LABeko kideek ziurtatu dutenez akordioa ez da negoziatu. "UGTk inposizioaren alde egin du. Langile eta enpresa batzordearen gaitzitezen pasatzen dira". LABk UPNri lepo-

ratu dio "lantegian eztabaida ez izateko erabaki politikoa" hartzea, "langileek egun batetik bestera akordioa berretsi edo lantegia itxiko zela, egoera horretan opatu ziren". Sodenak enpresa kudeatu duen urteetan "xantai eta itxiera mehatxua" ohikoak izan direla esan du LABek. Sodenaren irteerak langileak bermerik gabe etorkizunaren aurrean utzi dituela salatu du LABek.

Sunsundegui akordioak aurrera egingen zuela jakin baino bi ordu lehenago enpresan LABek enpresarendako "benetako alternatiba" baten proposamena egin zuen. Lehenik, "benetako trantsizio aldi bat bermatuko lukeen" sindikatu guztien eta gobernuaren arteko negoziazioa abiatzea eskatu zuen.

Negoziatorako oinarri hauek proposatu zituen LABek: "helburu

nagusia inbertitzaile bat bilatzea". Trantsizio aldia langileek bulkatu eta Sodenak ekonomikoki abalatu beharko lukeela adieraziko luke lau urtez. Langileen esku enpresaren kapitalaren %51 uztea eskatu zuen. Sodenak zorrari uko egingea eta 4 urtez enpresaren bideragarritasuna bermatzea proposatu zuten. Azkenik, kaleratze traumatikorik ez egitea proposatu zuten LABek.

SARRERAK SALGAI: WWW.BERTSOSARRERAK.EU ETA ETXARRIKO XAPATERO TABERNAN

13 SARE SOZIALA SARE SOZIALA

Informazio guztia nafarroakotxapelketa.com web gunean

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

**FINALA**

Martxoak 23:  
IRUÑEA  
17:00  
Anaitasuna kiroldegia

Julio Soto  
Xabier Silveira  
Aimar Karrika  
Erika Lagoma  
Jon Barberena  
Eneko Lazkoz  
Eneko Fernandez  
Oskar Estanga

www.nafarroakotxapelketa.com

Laguntzaileak: Antolatzaileak:

Guaixe.net

bertsotale



## SAKANA



Igoarking -ek diseinatutako zintzilarioak.

## Sakanan eginak

**Hainbat enpresa eta gizarte eragile parte hartzen ari dira hondakin sistema bilketa berriaren ezarpenean**

Sakanako Mankomunitateak laster jarriko du martxan hondakin sistema bilketa berria eta ibarrek hainbat enpresa eta gizarte eragile haien ekarpena egiten ari dira. Horietako bat da, Andoni Igoa eta bere anaia Igoarking enpresa, eraikuntzarako enkar-guak egiten dituen. Mank-en eskaera jaso zuen. Altsasuko Amaitaldeko bi kidek diseinatutako etxolak muntatzen ari dira, Ihararren (ekarpen gunea) eta Etxarriko auzo-konpostaje kaxeta.

Ikerketa, garapena eta berrikuntzatik abiatzen da proiektua, sistema herri bakoitzean egokitze-ko eta bere nortasuna mantentze-ko. Horregatik, hemengo atez ateko zintzilakairuak ez dira beste

herrietakoak bezalakoak: "diseinatu ditugun posteak egurrezkoak izanen direnez, integratuagoak egonen dira eta batez ere sendotasuna izanen dute", aipatu du Andoni Igoak. Izan ere, biltzen diren hainbat poste gunetan loreak jartzeko asmoa aztertzen ari da.

Kontzejuetan ez da zintzilakailurik izanen, ekarpen gunek baizik. Hiru edukiontzi izanen dira: horia, urdina eta grisa (errefusarako, birziklatzen ez denerako). "Egurrezkoak izanda, herri bakoitzaren beharren arabera egokitu ahal dira. Etxola erraz handitu edo luzatu daitekeelako egurrezko zutabeak jartzen edota kentzen", Amaitaldeko Javi "Trapero"-ren arabera.

### Egurra

"Guk ere uste dugu egurra etorkizuna dela beti hemen bertan

### 2. errondako parte hartze bilerak

Atez ateko bilketa puntuen proposamena azalduko da bizilagunek euren ekarpena egindaz. Finkatuta dauden datak hauek dira:

**Martxoaren 20an**, asteazkenean, 19:00etan Urdiaingo udal-letxean.

**Martxoaren 21ean**, ostegunean, 19:00etan Uharteko Arakilgo udal-letxean.

**Martxoaren 25ean**, astelehenean, 19:00etan, Lakuntzako udal-letxean.

**Martxoaren 25ean**, astelehenean, 20:00etan Arbizun udal-letxean.

izan baitugu. Gainera bio-erakuntzan zerikusia dauka, eragin-kortasun energetikoan oso garrantzizua da eta material eraginkorra da. Horregatik bai kontzejuetako ekarpen etxolak, bai aukonpostajerako kaxetak eta Atez Ateko posteak, egurrezkoak diseinatu ditugu", gehitu du Igoarkin enpresaren sortzaileak. Gainera, eguraldia kontuan izan dute: "ahal den gutxien kaltetuak izateko egurrak tratamendu berezi bat izango du. Gainera, ura gainean ez gelditzeko posteari pendientea emango zaio. Dena uretik aldentzeko", esan du arkitektoak.

Javi Traperok esan duenez: "proposamenak egiteko ausartak izan behar dugu. Aldatu daitekeelako. Alegia, margotu gabe gusatzen ez bazaigu graffiti batzuk egin ahal dira..."

## MOTZEAN

### Ibarretik Ferroforma azokara

Asteartetik auzora arte Bilbon Ferroforma azoka dago zabalik. Besteak beste tresnak, eramangarri elektrikoak, makineria, zura, industria eta eraikuntza-hornidura arloko enpresak bildu ditu azokak. Ferroformak fabrikatzaileak, inportatzaileak eta banatzaileak elkartzeko aukera ematen du, negozio eta merkatu aukera berriak sortzeko, edota alian-tzak sortzeko eta joerak ezagutze-

ko. 20. edizio honetan Sakanako hiru enpresa ari dira Ferroforman parte hartzen: Uharteko Arakilgo Laneko SAL, Lakuntzako Lacunza Kalor Group-LK Seguridad eta Altsasuko Talleres Asaizuleta SL (Arza).

### Lau sakandar Sorturen Nafarroako Kontseiluan

Gaur aurkeztu da ezker abertzalearen alderdi berriko, Sortuko Nafarroako Kontseilua. Zuzendaritza organoa osatzen duten 29 kideetatik lau sakandarrak dira. Sorturen

Nafarroako koordinatzailea Juan Kruz Aldasoro Jauregi da. Koordinatzailearen ondokoa Bixente Goikotxea Barandiaran. Sorturen barne antolaketaren ardura Maitane Intxaurren Uribarriren esku gelditu da. Borroka instituzionala gidatuko duena, berriz, Juanjo Goikotxea San Roman izanen da. Aurkezpenean adierazi dutenez, Sorturen lan tresnak izanen dira: konpromisoa, antolakuntza eta borroka. Lan instituzionala eta mobilizazio soziala eta herritarra. Ziurtatu zutenenez, "Nafarroako Sortu aldatetarako subjektu aktibo izateko jai da".

## Lakuntza



Lakuntzako EHEren aurkezpena. UTZITAKOIA

## Euskaraz bizitzearen aldeko kontzientzia zioa lehenetsi du EHEK

Larunbatean jendaurrean aurkeztu zen Lakuntzako Euskal Herrian Euskaraz (EHE). Eragile euskaltzaleko kide lakuntzarrek azaldu zuten aurten euren buruari jarritako helburuen artean dagoela *Ez zaitetz espaloitik jaitsi!* mezua zabaltzea. Lelo hori apirilaren 13rako EHEk Agoitzen antolatu duen Euskaraz Bizi eguneko leloa da.

Agoizko ospakizuneko leloa Etxarri Aranazko EHEk udaleko euskara batzordearekin sortutako dinamika batetik datorrela azaldu zuten Lakuntzan. Euskaraz hitz egiten dauden pertsonak

"espaloitik jaisten dira erdaldun bat agertzean, eta erdaraz hasten dira". Euskaldun izatearen kontzientziaren inguruan lan egiten du, beraz, Lakuntzako EHEk.

Etxarriko eta Altsasuko EHEko taldeen dinamika azaldu zituzten aurkezpenean azaldu zuten lakuntzarrei. Asmo eta erronken artean haietako batzuk baituzte. Horrekin batera, EHEren ibilbidearen errepaso historikoa ere egin zuten. Aldi berean, Sakanan euskalgintzan lanean dauden eragileen eta euskarak ibarreen dituen gabezien zerrenda egin zuten.

**Aukeratu Guaixe**  
Proiektu zenbakia: **50410**

cajanavarra

Nafarroan erroldatuta egotea eta 18 urte edo gehiago izatea.  
Bete formularioa, sinatu eta ekarri bulegora.  
Zuri esker 10€ko laguntza jasoko dugu.  
[www.cajanavarra.com](http://www.cajanavarra.com)

**CARNICERIA I. ARREGUI**  
HARATEGI ETA URDAITEGIA

Sakanako hiltegiaren hildako haragia

Etxeko obradorea:  
tripota  
tripotxa  
mihia  
kalluak  
saltxitxak  
frituak

tel. 948 576 067 Herriko plaza z/g LAKUNTZA



# «Elkarri eta ahora eman»



## Eskatu KORRIKAKo argazkiak Kiki argazki dendan

**guaixe.net** **kiki** AGENSIO Iortia plaza · Altsasu · 948 46 90 23



**BELEIXE IRRATIAK ZUZENENEAN EGIN ZUEN KORRIKAREN JARRAIPENA. MIKEL MUNDIÑANO ETA GORKA OVEJERO LAGUN IZAN ZITUEN ENEIDA CARREÑO ESATARIAK. UMOREZ BETERIKO SAIO MUNDIALA ESKAINI ZUTEN KORRIKALARI GUZTIENDAKO.**



Otzaurten elurra mara-mara ari zuen, baina partaideek ongi etorri beroa eskaini zioten KORRIKARI.



Altsasuarrak pozik, KORRIKAREN zain.



KORRIKA 18>> Eman euskara elkarri



Korrika Sakanan kilometroz kilometro



94 km. Sakanako Mankomunitatea.



95 km. Sakanako LAB.



96 km. Euskaltea eta Mintzakideak.



97 km. Magoteaux.





98 km. Ramoseko langileak.



99 km. Guerra Hermanoseko langileak.



100 km. Artzabal elkarteak.



101 km. Altsasuko Gaztetxea eta Musika eskola.



102 km. Aralarko Mikel Donea institutuko langileak.



103 km. Iñigo Aritza Ikastola.



104 km. Zelandi eskola.



105 km. Altsasuko Udala.



106 km. Sunsundegui.



107 km. Iñigo Aritza Ikastola.





108 km. Ziordiko gaztetzxea eta elkartea.



109 km. Ziordiko Udala.



110 km. Olaztiko Udala.



111 km. Olaztiko Maisuenea gaztetzxea.



112 km. Eskola txikiak.



113 km. Viscofaneko langileak.



114 km. Aitziber eta Tintinurri elkarteak.



115 km. Urdiaindarrak.



116 km. Urdiaingo Udala.



117 km. Aitzkozar elkartea.





118 km. Iturmendiko Udala eta Aritzaga elkarteak.



119 km. Bakaikuko Udala.



120 km. Bakaikuko Gazte Asanblada.



120 A km. Bakaikuko elkarteak.



121 km. Guerra Hermanoseko langileak.



122 km. Andra Mari Ikastolako gurasoak.



122 A km. Larrañeta elkarteak.



123 km. Etxarri Aranazko Udala.



124 km. Andra Mari Ikastolako langileak.



124 A km. Andra Mari Ikastolako ikasleak.





125 km. San Donato ikastetxe publikoa.



126 km. Udaberri elkarte.



127 km. Jeingenekoa esnekiak eta kuadrilla.



128 km. Karriestu elkarte.



129 km. Etxarri Aranazko EHE.



130 km. Lizarragabengoako kontzejua.



131 km. Arbizuko Udala.



132 km. Aldabide elkarte.



133 km. Lakuntzako Udala.



134 km. Lakuntzako Pertza eta Biltoki.





135 km. Sakana Coop.



136 km. Arruazuko Udala.



137 km. Arbibidea elkarte.



138 km. Aralar Mendi elkarte.



139 km. Uharte Arakilgo Udala.



140 km. Bierrik Fundazioa.



141 km. Irañetako euskara taldea.



142 km. Irañetako Udala.



143 km. Pikuxar.



144 km. Ihabarko kontzejua.





145 km. Hiriberriko kontzejua.



146 km. Arakilgo Udala.



147 km. Orritz dantza taldea.



148 km. Iratxo elkarte.



149 km. Etxarrengo kontzejua.



150 km. Urrizolako kontzejua.



151 km. Etxeberriko kontzejua.



152 km. Irurtzungo Udala.



153 km. Atakondoa ikastetxe publikoa.



154 km. Aizpea euskara elkarte.



## MOTZEAN

## Arakilgo Zuhaitz eguna Ekain

Arakilgo Udalak antolatuta, gaur, 16:00etatik aurrera, Ekain Zuhaitzaren eguna ospatuko da. Ekaira joaten direnak hainbat gaztainondo eta intxaurren landatuko dituzte. Lana despeditzerakoan guztiendako otamena izanen da.

## Auzolanerako deia

Eguraldiak laguntzen badu, gaur eta hurrengo larunbatean Altsasuko Basoixin auzolana egingen da. Auzolan taldetik jakinarazi dutenez, Dantzalekutik San Pedrorako bidean dauden zelaietan zuhaitzak landatu zirenetik hamarkadak pasatu

dira eta inguru horrek garbiketa baten premia du, argitzeko. 8:00etan jarri dute hitzordua Dantzalekuko igerilekuan. Lanean 14:00etaraino ariko dira. Bakarren batek garbiketa lan horietan parte hartu nahi badu lortia kultur gunean edo 012 telefonora hots eginez eman dezake izena. Altsasuko Udalak taldearen proposamenari oniritzia eman dio.

## Trenbidean lanak

Trenazpiegituren mantenuaz arduratzen den Adif enpresak Zaragoza Altsasu trenbidearen 211/120 puntuan hobekuntza lanak egingen ditu, Arakilen. Han dagoen trenbide azpiko pasaren porlanezko egitura sendotuko dute. Horrekin batera, drainatzeak eta isurbideak hobetuko dituzte.

## &gt;&gt; Altsasu

## Wert legeari buruzko azalpenak

Martxoaren 20an, asteazkenean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea elkartean

Espainiako Gobernuak hezkuntza lege berria indarrean jarri nahi du, LOCOME. Hari buruzko azalpenak emateko Sakanako guraso elkarteek batzarra antolatu dute. Hartan hezkuntza arloko erreformaren nondik norakoak azaldu eta izanen duen eragina azalduko dute.

Bestalde, herenegun DBH3. eta 4. mailako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasleak hezkuntza erreformaren kontra protesta egiteko greba egin zuten. Aralarko Mikel Donea ins-



Ostegun goizean ikasleek egindako manifestazioa.

titutuan ikasle guztiak greba egin dute, ibarreko ikastoletan ere jarraipena ia erabatekoa izan da. LHn, berriz, azterketa garaian

harrapatu ditu deialdiak, eta ez dute mobilizazioarekin bat egin. Sagrado Corazon ikastetxean ere jarraipen eskasa izan du.

## Eskelak

**Oroigarriak egiten ditugu**

Nahi duzun argazki eta testuarekin

**GUIAIXE KOMUNIKAZIOA**  
948 564 275  
Foru plaza 23-1  
Altsasu  
argi@guaixe.net

**Naiara**

Beti gogoratuko zaitugu



**Naiara Goikoetxea Arteta  
Garazi Garasa Guerrero**

Zuen barre handia gure alaitasunaren argia

Arkangoako zerbitzari guztien aldetik

**Hainbat aukera**

Galdetu  
**948 564 275**



**Naiara Goikoetxea Arteta**

II. urteurrena

Zu zara nire bizitza, nire argia eta indarra, nire bihotzaren zaindari leiala, nire egunsentien argi izpia, nire ilunabarren laztan leuna. Zu, Naiara, nere bihotzeko kuttuna, Maite zaitut.

## Bazkide zozketa



**MARSUKO SARIAK:**  
- 2 SARRERA EKAINBERRI KOBAZULOETAN  
+ TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA  
- KATXIPORRETA 1 ARROPA + TRIMAN NAVARRAREN 2 SARRERA

- KATXIPORRETA 1 ARROPA + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA  
- KATXIPORRETA 1 ARROPA + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA



## Non erabili

## Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrrenda osoa ikusgai

**SARABE TXOKOA**  
ALTSASU

30€tik gorako erosketagatik etxeko produktua opari.

**VALCARCE**  
OLAZTI

0'06€-ko deskontua litroko, erregai guzietan.

**EDERNE ILEAPAINDEGIA**  
LAKUNTZA

15 €-ko gastuarekin, bibotea depilatzea doan. 30 €-ko gastuarekin bibotea eta

bekainak doan. Eta ileapaindegian makilaje ukitua doan.

**XAGU**  
ALTSASU

%5eko deskontua, 30-tik gorako erosketa eginez gero.

**LIBURUNDA**  
ALTSASU

%5eko deskontua papertegian eta irakurketarako liburretan.

**GOIKO LOREDENDA**  
ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan %10 deskontua (Baratza eta garaiko loreetan izan ezik. Eskaintza ez metagarria).

**MARI JOSE ILEAPAINDEGIA**  
ARBIZU

Manikura 18€.

**LORENA FRUTA DENDA**  
IRURTZUN

%10eko deskontua fruta tropikaletan.





GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 19 70 70**

[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)




## Jose Joakin Ondarra Erdozia "Kintxo"

Urak dakarrena, urak daroa.  
Zuk erakutsitako apaltasuna  
gure artean geratuko da.

**GH GUEMA eta MECALSA-ko langileak**

Bakaikun, 2013ko martxoaren 14an.



## Garazi Garasa Guerrero Naiara Goikoetxea Arteta

II. urteurrena

Gure bihotzean zuen irria,  
gure bihotzean zuen begiak,  
gure bihotzean zuen izatea,  
gure bihotzean zuen keinuak,

gure bihotzean zuen  
edertasuna,  
gure bihotzean beti maitiak,  
Maite zaituztegu.

**Zuen guraso eta anaiak**

## Jokin Ondarra Erdozia

(Iñigo Aritza Ikastolako gurasa)

Urak dakarrena  
Urak daroa,  
Zuk emandakoa  
Gurekin geldituko da.

**Iñigo Aritza Ikastolako guraso, ikasle eta langileak**



Altsasun 2013-03-13.



## Garazi Garasa Guerrero

Hor zaude, gugan ere bai  
eta horrela izanen da beti.  
Gure bihotzean eramaten ditugu  
zure begirada, zure irrifarra,  
zure ahots goxoa, zure bihotz handia,  
zure besarkadak eta muxuak.  
Gure zorientasuna, zu ezagutzea,

gure lorpena, zurekin gozatzea.  
Min izugarriena, zu galtzea,  
desirarik handiena, beste bide-  
ertzean,  
elkar ikusiko dugula,  
Bihotz bihotzez, gure neska polit  
hori, maite zaitugu.

**Trini, Felipe eta Asier**



## Ana Larraza Etxarri



Martxoaren 17an eguerdiko 12:00etan  
meza ospatuko da bere alde Olaztiko  
elizan.

**Zure familia**



## Naiara Goikoetxea Arteta

Ez da izan ezta izanen ere  
nire memorian ez zauden egunik.

Maite zaitut

**Rafa**

## Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun  
argazki eta  
testuarekin



**GUAIXE**  
KOMUNIKAZIOA

948 564 275  
Foru plaza 23-1 · Altsasu  
argi@guaixe.net

## Naiara Goikoetxea Arteta

II. urteurrena

Gure aldetik joan zinen,  
gurekin egoten, ordea, jarraitzen duzu  
basoko tximeleta horia bazinen.  
Muxu handi bat.



## Naiara Goikoetxea Arteta

II. urteurrena

Zoriontsua nintzela amestu nuen bart,  
dena ongi zegoela amestu nuen,  
zure irrifarrarekin amestu nuen...

Naiara.

### JAIOTZAK

- **Adei Lazkoz Senar**, martxoaren 1ean Lizarragan.
- **Juan Carlos Perez Lahera**, martxoaren 2an Altsasun.
- **Maren San Martin Artieda**, martxoaren 3an Etxarri

Aranatzen.

- **Ander Siles Azpiroz**, martxoaren 3an Irurtzunen.
- **Olaia Martinez de Lagran Rodriguez**, martxoaren 5ean Altsasun.

### EZKONTZAK

- **Migel Angel Carpintero Gascon eta Maria del Pilar Cabeza Lopez**, martxoaren 9an Altsasun.

### HERIOTZAK

- **Angel Alegria Flores**, martxoaren

Sean Lakuntzan.

- **Leandra Urbistondo Mitxitorena**, martxoaren 5ean Izurdiagan.
- **Gregorio Lasa Bengoetxea**, martxoaren 7an Olaztin.
- **Amalia Muñoz Abad**, martxoaren 7an Altsasun.

- **Mikaela Asurmendi Lasa**, martxoaren 7an Altsasun.
- **Roman Irigoien Galarza**, martxoaren 10ean Urdiainen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da



## PILOTA

**ANSOTEGI TXAPELDUNORDEA BERGARAN:** Asteartean lau t'erdiko Sorlazue Torneoko finala jokatu zen Bergaran. Uharte Iruñeko

Yoldik 22-5 hartu zuen menpean Jon Anso-tegi etxarriarra. Yoldi jaun eta jabe izan zen eta Ansotegi, aldiz, urduri aritu zen.

# kirola >>

## Automobilismoa-rallysprinta

# Villares-Balas nagusi I. Olazti-Urbanasan

JENDETZA BILDU ZEN SAKANA MOTORSPORTEK ANTOLATUTAKO I. OLAZTI-URBASA RALLYSPRINTAN. I. GUAIXE SARIA GARIKOITZ GOÑI-RICARDO GARRIZENAKO IZAN ZEN

## 1.Olazti-Urba Rallya. Saillkapena

- |    |  |           |
|----|--|-----------|
| 1. | Martin Villares-Andoni Blas (Clio Sport) | 15:41.700 |
| 2. | Aingeru Castro-Angel Castro (BMW M3)     | 15:51.900 |
| 3. | David Ramirez-Helena Carrasco (BMW 325)  | 16:26.000 |

## Sakandarrak:

- |     |  |           |
|-----|--|-----------|
| 7.  | Juan Jose Sanz-Javier Goikoetxea (Clio Sport)      | 16:40:10  |
| 11. | Garikoitz Goñi-Ricardo Garriz (Renault 11 Turbo)   | 16:58.900 |
| 13. | Joseba Aldaz-Iker Azkargorta (Peugeot 205)         | 17:13.900 |
| 15. | Arkaitz Irigoien-Oier Larrañaga (Renault 11 Turbo) | 17:29.800 |
| 19. | Iñigo Etxarte-Eneko Aristu (Citroen Saxo)          | 18:01.800 |

## \*Saillkapen guztia:

www.fotomotor.es/es/competicion/clasificacion/976

Automobilismoak zaletu ugari dituela argi geratu zen beste behin eta jendetza hurbildu zen Sakana Motorsportek antolatutako I. Olazti-Urba Rallysprinta jarraituz. Eguraldionak ere presentee gona izan zuen eta giro ederra izan zen.

Nahiz eta proba arratsaldeko ordu bietan hasi, jendea goiz hasi zen Olazti-Urba geraturatzen, Urbasa-ko portua goizeko 10:00etan ixten zelako. Ostiraletik gaua mendian eman zuen ere egon zen. Antolakuntzak segurtasuna bermatzeari aparteko garrantzia eman zion. Ongi markatuta zeuden ikusleek proba jarraitzeko egon ahal ziren tokiak eta inondik inora egon ez zirenak. Guztia antolatzen Sakana Motorsportekokideak, Nafarroako eta Euskal Herriko Federazioetik etorritako komisarioak, eta Bierrik fundazioarekin bat egin zuten boluntarioak, sarrera kobratze eta garbiketara lanetan.

Clinker aurreko futbito pista izan zen lehen hitzordua. Autoak gertutik ikusteko aukera probestu zuten zaleek. Pilotu eta kopilotu sakandarrak autoei azken ukituak ematen topatu genituen. Han zeuden Garikoitz Goñi-Ricardo Garriz, Joseba Aldaz-Iker Azkar-



Autoa eliza aurreko aldapan gora.

gorta, Arkaitz Irigoien-Oier Larrañaga eta Juan Jose Sanzekin kopilotu lanak egin zituen Javier Goikoetxea eta Iñigo Etxarterekin kopilotu aritu zen Eneko Aristu, esaterako.

## Zirkuitu ikusgarria

Antolakuntzak prestatutako 5,5 km-ko zirkuitua Olazti-ko eliza atzealdean hasten zen, elizako aldapa igo eta eskuinerantz eginez. Kanposantutik gorako kalekatik Olazti-ko zirkunbalazio kalera heltzen zen, Olazti-ko sarreran chicane polita eginez, atzera ere errepidera aterata eta Erburua kiroldegiko aparkalekuan sartuz. Atzealde horretatik Olazti-ko San Sebastian ermita ingurura ateratzen zen, Urbasa-ko Altamiraraino igo eta Altsasuranzko bidetik jaitsi arte. Ibilbide hori lautan egin behar

izan zuten pilotuek. Haien manio-brak ikusteko jendea zirkuituan barna barreiatu zen. Urbasak beti erakartzen du eta Urbasa iogoeran, Altamiran eta baita jaitsieran ere jende asko bildu zen. Baina autoak Olazti herrigunearan gertu-gertu ikustera jende asko geratu zen. Esaterako, Olazti sarrerako chicane oso toki arrakastatsua izan zen.

Lasterketari dagokionez, azkenean 28 pilotuk hartu zuten irteera eta proban barna 5 erretiratu egin ziren, matxurengatik. Castro-tarrak ziren, akaso, faboritoenak, baina Martin Villares eta Andoni Blasen Clio Sporta (15:41.7) nagusitu zitaion Aingeru eta Angel Castroren BMW M3ari (15:51:900). Sakandarrei dagokienez, Javier Goikoetxea kopilotuaren laguntzarekin aritu zen Juan Jose Sanz 7.a sailkatu zen (Clio Sport, 16:40.100),

## Garikoitz Goñi: "Gozada izan da denboraldia etxean hasia"

Etxeberriko pilotua pozik zegoen Olazti-ko egindakolanarekin. "Jendepila ikusten, hemen Sakana, eta prestatu duten ibilbidea ikusgarria. Herrian barna zirkuitua oso polita, kurba itxiak eliza ondoan, gero salto batzuk badenetan, frontoi atzetik, eta Urbasa-ko iogoeraren zati txiki bat. Altamiratik jaitsiera polita izan da. Ondo moldata gara, pentsatzen nuen mantoago ibiliko ginela, baina nahiko ongi aterata da dena. Autoa ere ongi portatu da eta egindako lanarekin gustura". Bere asmoa Nafarroako txapelketa guztia egitea da eta Euskal Herriko txapelketa proba batzuk osatzea. "Jakina, lastaileko Urbasa-ko iogoeran ikusiko gara" aipatu digu.



## Arkaitz Irigoien: "Oso ibilbide polita du"

Arkaitz Irigoieni asko gustatu zitzaion Olazti-ko Rallysprinta. "Ibilbidea oso zaila zen. Bide estuak, kurba asko... baina oso polita iruditu zait" nabarmendu du. Bakaikuarra pasa den urtean hasi zen korrikari eta "berde xamar" ikusten du bere burua. Olazti-ko hasieran gaizki ibili zela aitortu du. "Hasieran urduri nengoen eta akats izugarri bat egin dut. Autoa gelditu zait kurba batean eta minutu bat kostatu zait arrankatzea. Baina gero lasaitu naiz eta oso gustura ibili naiz. Hemendik aurrera asmo zehatzik ez dut. Diruak laguntzen duenean gutokodudan rally bat korritzerajoa, baina lasaitasai. Ahal denean joan, baina disfrutatzeraz gaineratu du.



baina lehen auto sakandarra Garikoitz Goñi eta Ricardo Garrizena izan zen (Renault 11 Turbo, 16:58). Etxeberriko pilotuak jaso zuen I. Guaixe Saria, Miren Ustarroz eskulturgile uhartearrak egindako zurezko eta marmol txuriko eskultura ederra.

## Antolatzaileak kontentua

Sakana Motorsportekoak kontentua daude gauzak ongi aterata direlako. "Egunean bertan dena bildu genuen, nahiko azkar. Garbiketara lanak ere larunbatean eta igandean egin zituzten Bierrikekoek eta dena txukuntxukun utzi genuen. Ahalik eta eragozpen gutxien izan daitezen saiatu gara" adierazi du Sakana Motorsporteko Iban Lopez de Goikoetxeak. Proba azkar-azkar joan zela gaineratu du. "Auto gehiagorako aurreikuspenak egin genituen.

Gainera, bizi-bizi joan zen proba" aipatu du Olazti-koak. Bestalde, jasotako dirua Guaixe eta Belexeren-dako izan da eta boluntarioei eta ikusleei eskerrak beroenak eman dizkie Bierrik fundazioak.

## Hurrengo, Urbasa-ko iogoera

Pilotuei asko gustatu omen zitzaion proba. "Tramoa ikusgarria zela esaten ziguten, oso teknikoak. Errepikatze gogoekin geratu ziren" kontatu digu Lopez de Goikoetxeak. Probak jarraitzea izanen duen hala ez galdetuta, ora indik ez dutela erabaki erantzun digu Olazti-koak, baina gustatuko litzaiekeela. "Kontua da jendetza izugarria behar dela hau antolatzeko. Aurten Bierriken laguntzarik gabe ezingo genuke" azpimarratu du. Hori bai, lastaila aldera Urbasa-ko Igoera antolatzeko dute buruan.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK.

"GIZARTEAREN GARAPENEA LAGUNTZEKO IKERLARI IZAN NAHI NUEN ETA UNIBERTSITATEAK ATEAK IREKI DIZKIT."

Alaitz Zabala,  
Biomaterialen ikerketa  
lerroko ikerlaria.

## ATE IREKIAK

Goierriko campusa INGENIARITZA

MARTXOAK 16 larunbata, 10:30 ORDIZIA

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436 WWW.MONDRAGON.EDU/PREST



PREST  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA  
POLITEKNIKOA  
ESCUELA  
POLITÉCNICA  
SUPERIOR



## Triatloia

# Triatloia Sakanatik mundura

## Sakana Triatloi Taldea 2013



Helduak: Alberto Martinez de Lagran, Mikel Lakuntza, Juntxo Azurmendi, Jokin Lazkoz, Francisco Javier Gomez, Isidro Asurabarrena, Javier Borrega, Mikel Berdud, Juan Luis Maiza, Felix Benjumea, Juan Carlos Gomez, Esteban Berdud, Jose Manuel Borrega, Cesar Vicente, Urko Berdud, Francisco Jose Codon, Oscar Sanz de Acedo eta Iñaki Gallego. Umeak: Leire Maiza, Xabier Borrega, Ander Villalobos, Unai Villalobos, Patxi Calleiras, Iñigo Maiza, Gaizka Peñagarikano eta Jakes Peñagarikano. ARGAZKIA: ERKUDEN RUIZ BARROSO

Gazteak kirol hau praktikatzera animatu nahian Sakana Triatloi Taldeak bere burua aurkeztu zuten larunbatean Zelandi kiroldegian.

25 pertsonak osatzen dute taldea: benjaminak, kimuak, haurrak, kadeteak, gazteak eta senior mailakoak. Talde polita da, baina umeak eta gazteak gutxi direla esan du Felix Benjumea Sakana triatloi taldeko presidentek.

### Sakanako probak

Euskal Herriko eta Nafarroako duatloi eta triatloi probetan parte hartuko du aurtengo Sakana Triatloi taldeak. Distantzia luzeko diziplinan ere arituko dira ere. Bestalde, martxoaren 23an jokatu den Altsasuko triatloia antolatuko dute -informazioa eta izena ematea [www.navarratriatlon.com](http://www.navarratriatlon.com) orrian- eta Arbizuko Udalarekin

batera apirilaren 27an jokatu den Arbizuko Duatloia prestatzeko lanetan ariko dira. Horretaz gain, haurrendako eta gazteendako Nafarroako Kirol Jokoen Triatloi Txapelketan antolakuntzan lagunduko dute, garailaren 20an jokatu den Sakanako Triatloi Txapelketa prestatzen. Eta, jakina, gazteak trebatzeko udako triatloi campusa izanen da garailean.

### Sakandarrak Durangon eta Basaurin

Iurgi Etxeandiak (2:01:17) irabazi zuen Durangoko VII. Duatloia (10 km korrika, 40 km bizikletan eta 5 km korrika). Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza etxarriar 40. sailkatuz (2:13:39), probako 4. beteteranoa. Basauriko XVII. Duatloian (6,2 km korrika, 19,9 km bizikletan eta 2,9 km korrika) Lourdes Oartzabal izan zen lehena (1:20:23). Sakana Triatloi taldeko Fco. Javier Gomez 22.a izan zen (1:12:05), 2. beteteranoa, eta Juan Carlos Gomez 45.a (1:17:17). Asteburuan Oñatiko Duatloia eta Arangurengoa dau- de jokoan.

### Altsasuko proba prestatzen

Sakana triatloi taldean maila ona duten kirolariak daude. Hor ditutu Urko Berdud, Felix Benjumea eta Javier Borrega, esaterako, beste hainbatekin batera. Finean, Sakana Triatloi Taldearen xedea triatloia ezagutaraztea eta hobetzea da. Orain Altsasun martxoaren 23an jokatu den probaren antolaketan dabilta burubelarri.

## Mendia

## Tologorrira Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak ibilbide polita antolatu du martxoaren 24rako Araba-Bizkaia mugan. Tologorri (1.068 m) igo eta Salvada mendizerran barna ibilbidea egingen dute. Autobusamartxoaren 24angoi- zeko 7:00etan aterako da Irurtzundik, eta geldialdiak egingen ditu gaintzeko herrietan. Izena ematea zabalik dago ostegunera arte ohiko tokietan edo 636 827 166an.

## Atletismoa

## Moreno hirugarrena Dulantzin

Javi Moreno altsasuarra 3. a izan zen Dulantziko lasterketan (5 km), probako lehen beteteranoa.

## Pala

## Gure Pilotakoak Nafarroako Kirol Jokoen finaletan

Igandean 26. Nafarroako Kirol Jokoen emakumeen palatxapelketako finala jokatu dira Iruñeko Labriten, 10:00etatik aurrera. Etxarriko Gure Pilota taldeko neska ariko dira.

## Herri kirolak

## Altsasutik Etxarrira

**Nafarroako Herri Kirol Jokoen 4. jardunaldia Etxarri hartuko du, igandean, 11:00etan**

Altsasuko Iortia plazan jokatu zen Nafarroako Herri Kirol Jokoen 3. jardunaldia, eta Sakanako taldeek maila bikaina eman zuten. Proba konbinatuak eta sokatira probak jokatu ziren.

### Altsasuk eman zuena

Kimuen mailako proba konbinatuari ari diren 8 taldeen artean Andra Mari ikastola gailendu zen (6:52). Andra Mari ikastolatik sortutako Putterri taldea bigarrena izan zen (7:00) eta Iñigo Aritzeta ikastola 5.a (7:15). Sailkapenean Andra Mari lehena da, Putterri bigarrena eta Iñigo Ari-

tza zazpigarrena. Haurren mailako proba konbinatuan 7 talde aritu ziren eta Berriozar gailendu zen (8:35). Bigarrena Andra Mari taldea izan zen (9:52) eta hirugarrena Iñigo Aritzeta (9:55). Putterri 7.a sailkatu zen (10:28). Sailkapenean Berriozar da lehena, Andra Mari bigarrena, Iñigo Aritzeta hirugarrena eta Putterri seigarrena. Eta kadete mailako proba konbinatuan aritu ziren 4 taldeen artean Basaburua gailendu zitzaion (10:25) Andra Mari (10:34). Sailkapenean bigarrena da Andra Mari.

Sokatiran, haur mailan (480kg) Iñigo Aritzeta izan zen onena (5 puntu), Andra Mari aurretik (4 puntu). Putterri 5.a sailkatu zen



Sokatira proban lehia handia izan zen.

(puntu 1). Iñigo Aritzeta da lehena, Andra Mari bigarrena eta Putterri bosgarrena. Eta kadeteen mailan (540 kg) Andra Mari eta Berriozarrek berdindu zuten (2,5 puntu). Sailkapenean berdinu-

ta daude Berriozar eta Andra Mari.

Nafarroako Herri Kirol Jokoen 4. jardunaldia Etxarri Aranzetan jokatu da, igandean, 11:00etatik aurrera.

### Emakumeen Paleta Gomako Nafarroako Kirol Jokoen finalak

**Benjaminak:** Gorostiaga-Senosiain (Fronton Lopez) - Erdozia-Otxoa (Gure Pilota)

**Haurrak:** Pueyo-Senosiain (Fronton Lopez) - Mendinueta-Lasa (Gure Pilota)

**Kadeteak:** Murillo-Carrasco (Oberena) - Jaka-Lasa (Gure Pilota)

**Gazteak:** Parot-Ansotegi (Gure Pilota) - Unanua-Lusarreta (Oberena)

## Txirindularitza

## Datozen probak

Afizionatuek Lehendakari Txapelketarako baliagarriaren lasterketa dute igandean Lizarran (120 km). Master mailakoek, berriz, lasterketa dute igandean Eguesen, 10:30ean (92 km). Azkenik, Zangozak Espainiako BTT Open hartuko du igandean, 10:00etan (31,2 km). Bestalde, Aiztondo Klasi-koan Rural Kutxa talde sakandarra izan zen talde onena. Migel Benito 4.a izan zen, eta Diego Rubio 5.a.

### EGOI ETA AZANZA MILANEN

Profesionalek Catalunya-ko Voltadute jokoan, martxoaren 18tik 24ra. Bestalde, Imanol Erbiti (Movistar) 104.a izan zen Richie Portek irabazitako Paris-Nizan. Gorka Verdugok (Euskaltel) ezin izan zuen proba bukatu. Eta Vincenzo Nibalik irabazi duen Tirreno Adriatikon Jorge Azanza 72.a izan zen eta Egoi Martinez 74.a. Egoi eta Azanza Milan-San Remo klasi-koan ariko dira igandean.

**Neguko Argazki Lehiaketa**

>> **Saria:** RAMOS dendak eskainitako MP3 bat

Argazki lehiaketaren oinarriak:

Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra aurkeztu dezake. Neguko argazkiak izanen dira. Argazkiak Sakanan eginak izan behar dute (Aralar, Andia eta Urbasa mendiak barne). Argazki digitalak bakarrik onartuko eta jpg formatua izatea. Bierrik Fundazioak berretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jenduraren erreproduzitzen eta jakina-

razten uzten dituzte Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak martxoaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira Bierrik Fundazioaren Facebook profilaren bitartez edo @Guaixe twitter kontuaren bidez, #guaixeneguko alipamena eginaz. Irabazleak nortzuk diren martxoaren 28an jakinaraziko da, astelehian. Argazkiak [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net) webgunean jarriko dira ikusgai.

Lorea Aralar Txirindulari Taldearen babeslea da

**lorea**  
lore eta belardenda

948 46 74 26 | San Juan 52  
685 72 21 12 | 31800 Altsasu

Gure web orria bisitatu  
[www.floristerialorea.net](http://www.floristerialorea.net)



**Futbola**

**3. MAILA**  
28. JARDUNALDIA

**LAGUN ARTEA 2 - BURLADES 0**  
Burladesen kontrako garaipenarekin 3. mailari eusteko pausu handia eman du Lagunek. Rubenen eta Unai Bakaikoaren gol ikusgarriekin, 3 puntuak etxean geratu ziren.

Saillkapena >>

1. Mutilbera	58 p
12. Lagun Artea	38 p

Asteburuko jardunaldia

**CARBONERO / LAGUN ARTEA**  
(Iganbean, 17:00etan, Zintronikon)

**ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa**  
23. JARDUNALDIA

**AURRERA 2 - ETXARRI ARANATZ 2**  
**BURLADES 1 - ALTSASU 0**  
Dominatzaile argirik gabeko partidari, Etxarri 1-2 aurreratu zen baina leitzarrek bina berdintzea lortu zuten. Burlades-Altsasu partida husna bukatuko zela zirudienean irabaztea lortu zuen Burladesek. Altsasuko atezainak geldialdi bikainak egin zituen.

Saillkapena >>

1. San Juan	61 p
8. Etxarri Aranatz	23 p
10. Altsasu	21 p

Asteburuko jardunaldia

**ETXARRI - BURLADES**  
(Larunbatean, 16:30ean, Etxarrin)  
**ALTSASU - ARDOI**  
(Larunbatean, 16:15ean, Altsasun)

**ELOMENDIKO TXAPELKETA**  
19. JARDUNALDIA

**ZALDUA 10 - IZALSA 0**  
**EGIARRETA 0 - UNZITI 1**

Saillkapena >>

1. Unziti	28 p
6. Zaldua	18 p
7. Egiarreta	15 p

Asteburuko jardunaldia

**PARTIZAN - ZALDUA** (Atarrabian)  
**EGIARRETA - BAR POUKÁS** (Uhartre Arakilen)

**Areto futbola**

**OHOREZKO MAILA**  
19. JARDUNALDIA

**GALDAR 1 - TRIMAN NAV. XOTA 5**  
El Pozoren kontra kopan eta ligan galdu eta gero, animorako oso ongi etorri zaito Trimán Navarra Xotari Galdarren kontrako garaipen argia eta justua. Asteburuan derbya jokatu dute Irurtzungo taldeak eta Tuterako Rios Renovablesak. Bi taldeak saillapenean ongi daude eta lehia estua espero da.

Saillkapena >>

1. Bartzelona	46 p
5. Trimán Navarra Xota	36 p

20. jardunaldia

**TRIMAN NAVARRA XOTA - RIOS RENOVABLES**  
(Gaur, ostiralean, 20:30ean, Anaitasunan). Ohorezko mailako bi talde nafarren arteko derby ikusgarria Iruñean jokoan.

**SAKANAKO TXAP. - IKER KIROLAK**

Sakanako 22. Areto Futbol Txapelketa-Iker Kirolakoko 3. Itzulia dago jokoan.

15. jardunaldia (bihar, larunbatean, Altsasun)

**AREZPE - PIPEROXXI**  
**PATINTER - ASS APPLE**  
**AUZOMOTOJORIK - BILTOKI**

**Pilota**



Hiru bikotek lortu dute Binakako finalerdietarako ligaxkara sailkatzea: Irujo-Zabaleta, Bengoetxea VI-Beroiz eta Olaizola II-Ibai Zabaleta. Laugarrena zein izango den hurrengo bi jardunaldietan erabakiko da, baina Titinek eta Merinok aurrera pausu nabarmena eman zuten Ezkurdia eta Zubieta irabazita. Berasaluze VIIIa eta Albisu dira errioxarreirekin aurre egina halakoa dituen bakarrak.

**Puntu eskas batengatik eta polemika tarteko, kanpoan**  
Finalerdietara pasatzeko pausu

erraldoia ematea zuten jokoan Ezkurdia-Zubietak eta Titin III-Merinok hilabiziko lehian. Lehia estua izan zen, ikusgarria, emozioz betetakoa. Erritmo harrigarrian jokatu zen eta bi bikoak parez pare aritu ziren. Ezkurdiak eta Titinek, tanto asko egin zituzten baina akatsak ere bai. 17-19ra aurreratzea lortu zuten sakandarrek. Polemika-rako tartea ere izan zen, Merinok atxiki argi bat egin baitzuen, epaileek ikusi ez zutena, eta Titinek behin eta berriz epaileei Ezkurdiak egindako sake bat falta izan zela eskatuz ibili baitzen. Tamalez,

**Aukerarik gabe**

**HORRELA GERATU DIRA EZKURDIA-ZUBIETA, TITIN III-MERINOREN KONTRAKO HIL ALA BIZIKO PARTIDA GALDU ONDOREN. TITIN III-MERINO ETA BERASALUZE VIII-ALBISU DIRA PASATZEKO AUKERA DUTEN BAKARRAK**

**Binakako Pilota Txapelketa. Puntuazioa.**

9 puntu:	Irujo-Zabaleta Bengoetxea VI-Beroiz
8 puntu:	Olaizola II-Ibai Zabala
6 puntu:	Titin III-Merino
5 puntu:	Berasaluze VIII-Albisu
4 puntu:	Ezkurdia-Zubieta Xala-Barriola
3 puntu:	Arretxe II-Begino

**Binakakoa. 13. jardunaldia jokoan**

**Xala-Barriola / Irujo-Zabaleta**  
**Ezkurdia-Zubieta / Bengoetxea VI-Aprreiz (Beroizen orde)**

azken bi tantoetan Ezkurdiak huts egin zuen eta 22-21 galduta txapelketari agur esan behar izan diote sakandarrek. Oso haserre azaldu zen Zubieta errioxarren protestekin. "Errespetu falta handia izan da. Badirudi hemen denak balio duela" azaldu zuen. Bestalde, Berasaluzek eta Albisuk 22-20 irabazi

zieten Irujori eta Zabaletari. Finalerdietarako okerrak zuzendu beharko dituzte.

**Datorrena**

Irujok eta Zabaletak Xala eta Barriola izango dituzte aurkari eta Ezkurdiak eta Zubieta Bengoetxea VIa eta Beroiz. Ohorea dute jokoan.

**Xakea**

**Xakearen Ordua Irurtzunen**

**APIRILEAN HASIKO DIRA KLASEAK, LIBURUTEGIAN, DOHAIN**

Xakean jokatzeko ikasi nahi duenak aukera ederra dauka Irurtzunen, Xakearen Ordua ekimena antolatutako baitu Irurtzungo Udalak. Xake ikastaroa apirilean hasiko da eta 8 urtetik aurrerakoek eman dezakete izena, doan. Ikastaroa liburutegian eskainiko da, ostiraleroko, 19:00etatik 20:30era. Sakanako Zaldi Beltza Xake Taldeko Koldo Flores izango da monitorea eta liburutegian dauden liburuak, CD-

ROMaketa beste erabiko dituzte xakea irakasteko. Floresek Etxarri Aranatzek ere ematen du xake ikastaroa. Larunbatetan xake txapelketak egingo dira Irurtzungo gazte txokoa. "Ilusioa ematen dit Xakearen Ordua antolatu izanak eta xakean murgiltzea. Ematen du herri honetan xakearekiko afizioa badagoela. Ea xakean jolasteko ohitura berreskuratzen dugun" adierazi du Irurtzungo kirol eta kul-

tur teknikari Patxi Mikeok.

**Izena ematea zabalik martxoaren 25era arte**

Irurtzungo xakearen orduan izena ematea zabalik dago, martxoaren 25era arte. Liburutegian bertan eman daiteke izena. Klaseak apiriletik aurrera hasiko dira.

**Zergatik xakea?**

Hamaika arrazoi daude xakean aritzeko: adimena eta kontzentrazioa lantzen ditu, irakurketa ahalmena hobetzen du, bestearengan pentsatzen laguntzen du...



Koldo Flores izango da monitorea.

**Arbizuko udala**

**ARBIZUKO UDALAK OLATZEA HOTELA KUDEATZEKO KONKURTSOA DEITU DU**

Pliegoak udalean edo udaleko web orrian egongo dira eskuragarri. Proposamenak aurkezteko azken eguna martxoaren 22a izango da.



**ARBIZUKO UDALA**

**Bakaikuko udala**

**ALDAKETA XEHAKATUA: HASIERAKO ONESPENA**

Bakaikuko Udalak 2013eko otsailaren 5ean eginiko bilkuran hasierako onespena eman zion, 1 poligonoko 241 lursailaren aldaketa xehakatuari, Asier Lopez de Zubiriak sustatua. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 77 eta 74. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, espedientea jendaurrean egonen da hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, aztertu eta bidezko alegazioak aurkez daitezten.



**BAKAIKUKO UDALA**

Bakaikun, 2013ko otsailaren 5ean.

Ion Tabar Cayuela, Alkatea

Iturgintza  
Berogintza  
eta Gas



**PEIO**

659 286 344

**maríaeugenia**  
**Arrainak**  
www.pescaderiamariaeugenia.com  
Arratsalde zabalik

**Lortu deskontuak gure txartelarekin!**

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
El Ferial, 1 · 948 467 950 / Isidoro Melero · 948 467 725

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
EDARI BANATZAILEA

*Zatoz gure ardotezia ezagutzera!*

Geltoki auzoa 11 · Altsasu  
948 467 317 · 696 979 279  
hijosdegoikoetxea@yahoo.es



# kultura >>

EMAKUMEA FILM LABURRETAN: Igandean, 17:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. Emakumeen nazioarteko egunaren inguruan, emakumeen gaia edo emakumeak protagonista duten hiru film labur dira ikusgai izanen direnak: La celda, Ahora no puedo eta Pornobrujas.

## Hesitu gabe



**H**esian: Hemen eta orain izenburua du talde sakandarraren azken lanak. Agorrilaren 14an Gernikan grabatu zuten zuzeneko emanaldia jasotzen duen diskoa eta DVDa argitaratu dute. Izenburuak taldearen uinari egiten dio erreferentzia: “guai arte eindako lan guzie biltzeko baliyo dau. 6-7 urtetako lan hortan jende askok parte hartu dau, beye guaixe bertan ez de taldien. Eindako lan guzi horren ondoriyue da” Igotxok (saxoa) **Beleixe Irratian (FM 107,3)** azaldu zuenez. Eta, gaineratu du: “eindako guzie grabatu diau, irudiyakin ta soñubakin. Ez da ezez berriye. Hesian da”.

Taldean izandako aldaketak nabaritu direla aitortu zuen Igotxok: “urte batzuten fuertio, beste batzuten bajuo. Beye, egiye esan, fan zan urtie oso ona izen zan eta aurtenguede, esperantza eta itxure guzie ai da hartzen, urtie kontzertu aldetik oso ona izenokodala”. Gustura dabilta taldekideak.

### Azkena

Zuzenekoa grabatzeko burutaziorikezzuten, baina Igotxok esan zuenez, teknikariak horren aukera aipatu zien. “Guteko esperientzia berri bet zan. Politte. Estudioko lau lan bagiñazkan ta bosgera zuzenekue izetie gustetu ein zakigun. Guk beti esaten diau zuzeneko taldie gala”. Horregatik azken lanak aurkezpen txartel gisa balioke diela arrazoitu du saxo-joleak.

Igotxok **Beleixe Irratian** azaldu zuenez, teknikariak ere grabaziorakotokia, Gernika, proposatu zien: “plazapolitte izeten dala, jende asko faten dala. Geñas, geunden momentu betien, jendiek kontzertuten bastante erantzuten zela, kantatzen, faten. Emaitze oso ona izen zan”.

19 kantu jaso ditu Hesian-ek bere ibilbidea erreparatzen duen CDan. DVDak, berriz, 22 kantuko bilduma du. Horretaz aparte, taldeari buruzko dokumentala jaso dute: *Hesian biluzten*. “Ze gan ta ze errealdede bizi diaun; ta ze pentsatzen diaun makinat gairen inguben

40 minututen espliketzen diau” azaldu zuen Igotxok **Beleixe Irratian (FM 107,3)**. Elkarrek banatuko ditu diskoak, baina taldekideek web orriaren bidez salgai jarriko dituzte, eta Sakanako tabernetan ere eskuratzeko aukera izanen da.

Kursaal-en aurkeztu zuten azken lana. Toki txiki, txoznetako eszenatokietara eta abarretara ohituta, han jotzeko deitu zituztenean, “zerbeitt diferente eittatis” joan zirela esan du Igotxok **Beleixe Irratian (FM 107,3)**. “Esperientziye oso politte izendua. Lan asko eskatu dugu”. Horren ondoren ez da Hesian geldituko.

### Gizarte sareak

Kontzertuak despeditu ondoren jendeak argazkiak, aipamenak eta beste igotzen ditu sareetara. “Bastante zaintzen diau. Zuriñe trebe da hoiten ta saiatzzen da harreman zuzenoi mantentzen. Azkenien, sare sozialak hortako die: publikuekin harremana mantendu eta publizidedie eitteko”.

## di-da >>

### MUSIKA

#### MUSIKA PENAK UXATZEKO

**Gaur, 20:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean**

B vocal taldekoak Acapelando lanarekin etorriko zaizkigu bihar Altsasura. 5 gizonetako osatzen dute taldea eta a capella kantua dute bizi-tzaren ikuspegia zabaltzeko tresna. Kritik datorren ikuspegi “kritiko” bat erabiliz, hitz jokoekin, irribarrea sorrarazi nahi dute, penak uxatzeko modu onena baita. Musika eta umorea eskutik. Mundu guztian arrakasta eta sariak lortu duen ikuskizunean.

#### EUSKAL KANTUEN JAZZ BERTSIOAK

**Igandean, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean**

KORRIKA kulturalak eskarmentu handiko musikaria ekarriko du bihar Olatzagutira: Iñaki Salvador. Euskal musikako izen handien ohiko kolaboratzailea, bai diskoetan, bai kontzertuetan. Salvador bakarka ere aritu izan da euskal kanta tradizionalan, autore garaikideekin edota pianoarekin. Pianista, soinu-jole eta moldaketa-egilea, Salvador Olatzagutira Ainara Ortegararekin batera etorriko da. Duoak piano eta ahotsarekin jazz bertsiok egingen ditu. Haien emanaldian Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Oskorri, Mikel Markez, Amaia Zubiria, Juan Carlos Perez, Gorka Knörr eta beste hainbaten sorkuntzen bertsiok izanen dira.

### ERAKUSKETAK

#### SAKANDARRAREN LANAK OINEZEN ERAKUSKETAN

**Apirilaren 7ra arte Iruñeko Gotorlekuko arma aretoan ikusgai izanen da**

Urtero moduan, hutsik egin gabe, artista sakandarrek Nafarroa Oinezek artearekin duen hitzorduarekin bat egin dute. Aurten Artea Oinez erakusketa Tuterako Argia ikastolak antolatu du. 61 artistaren lanak jarri dituzte ikusgai, hiru sakandarrenak tartean. Jose Ramon Andaren Ikusmira eskultura dago Artea Oinez erakusketan. Mikel Okiñenak izenik gabeko eskultura batekin egin dio ekarpena erakusketari. Dora Salazarrek, berriz, Bailarinas cosmicas pintura jarri du ikusgai.

#### SALAZAR ARTISTA LIBURUEN ERAKUSKETAN

Donostiako Arteko galerian, gaur, 20:00etan, mustuko da artista liburuari buruzko erakusketa. Apirilaren 30era arte zabalik egonen den erakusketa horretan hainbat emakumek sortutako artista liburuak egonen dira ikusgai, horien artean Dora Salazarrenak. Altsasuarrak duela bi urte egin zuen Cuentos para adultos liburuko kapitulu bat du erakusgai. Erakusketa kolektibo horrekin Arteko galeriak Mujeres en las Artes Visuales-ek antolatu duen II. Emakumeen Begiradak Jaialdiarekin bat egin du.

## bazterretik

Galder Gonzalez Larrañaga

### Ateak Ireki

Orain bi urte indarrez itxi ziguten Apurtu.org webgunea. Orain bi urte, okerrera dena, indarrez eraman zituzten hainbat kazetari eta militante, bertan egiten zuten lana dela eta. Baina orain bi urte proiektu berri bat jarri zen martxan: Ateak Ireki. Proiektu honek hasieratik Apurtu zituen erroreki heltzeaz gain, bere esparrua zabaltu zuen, eta errepresioaren aurkak mugimenduen jarraipena egiteaz gain, denuntzia

sozialari laster heldu zion.

Bi urte hauetan denetarik gertatu da Nafarroan: egoera ekonomikoak okerrera egin du, eta horrekin batera batzuek kutxa publiko bat desagertarazi dute. Hainbat greba orokor egin dira, tartean Sakanan bat orain gutxi. Nafarroako Gobernurako hauteskundeak izan ziren eta UPNk PSNrekin paktatu zuen. Haustura izan zen eta orain Barcina kolokan dago. Hainbat presoren ongi etorriak izan dira, eta operazio polizialen bat. Epai-

ketak izan dira eta dokumentalak egin ditu herri mugimenduak. Ospitaletako zerbitzuak pribatizatu dituzte eta ikasleek mobilizazioak egin dituzte.

Bi urte hauetan Ateak Ireki hauek eta beste askoren berri eman digu, askotan albiste gisa, besteetan elkarriketa edo erreportai gisa. Benetan txalogarria da hainbat egunetan izandako jarraipena, egindako lanketa komunikatiboa. Demostratu dute komunikabide tradizionalak gain, badela gauzak egiteko bes-

te modu bat. Eta komunikabide tradizional batzuek euren edukia jarri behar izan dituzte.

Sarean aktibismoa egiten dugun on-tzat tresna ikaragarria izan da eta horregatik orrialde hauetatik zoriondu baino, eskertu nahiko nieke egindako lana. Argudioak eman dituzte, bideo formatuan, YouTube zein Facebookeko tresnak erabiliz. Eta jendea formatu dute, greba orokorretan benetako pikete informatiboak kalera ateraz.

Establishmentak badu honen berri.

Famatua izan zen Barcinaren argazki bat, Parlamentuan Pejenauteren berri jasotzen Ateak Irekiaren webgunean. Kezkatzeko modukoa da, kaka leku guztietatik darien honetan, kudeatu eta isildu ezin dezaketzen herri komunikabide potenteak egotea. Hori da euren esparrua, eta hor dago euren ekimenaren arrakasta. Esandakoa, zorionak eta eskerrik asko, Ateak Ireki (eta bertan lanean dauden guztiei) azken bi urtetan egindako lanagatik.



**enkartea GUAIXEN**  
948 564 275 argi@guaixe.net

Enkartatzea → 340€  
Diseinatzea + inprimatzea + enkartatzea → 455€  
eskaintza ez metagarria

Zure eskuorria  
Guaixeren barruan  
Sakanako 4.500 etxetan

**GUAIXE KOMUNIKAZIOA**

## Shakespearen bi bisita berri



**Gaur, larunbatean, 20:00etan eta, bihar, igandean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean**

Egile ezagunaren Uda bateko ametsa obraren bi emanaldi berri egingen ditu Irurtzungo antzerki tailerrak. Angel Sagües zuzendariaren esanetara 14 antzez-

le irurtzundarrek komedia erromantikoa taularatuko dute. Gizarteko maila ezberdinetako jendeak eta maitagarriak elkarrekin agertuko dira, amodio istorioetan korapilatuta. Euskal mitologiako eta inguruko geografia aipamenekin moldatu dute obra, zabu baten inguruan gertatzen dena.

**H**orretan aritu dira Irurtzungo pintura tailerreko kideak Ura Sakanan erakusketan ondu ahal izateko. Ostiraletik eta hilabete akabera bitartean Tahonak eta Pikuxarrek tailerreko 15 egileren margolanak hartu dituzte, jendeak ikus ditzan. Pikuxarren, gainera, herriko haur margolarien lanen bat ere badago.

Joan den urtean erakutsi zuen estreinakoz pintura tailerrak bere lana. Arrakasta ikusita esperientzia errepikatzea erabaki dute. Emakumea gai gisa errepikatuko beharrean ura hartu dute. Hala, erakusketan ibaiak, Irurtzungo iturriak eta beste daude ikusgai. Isabel Garcia irakasleak azaldu digunez olio egindako lanak dira denak. "Batzuk errealistak, inpresionistak besteak, collageren bat ere badago". Tailerreko kide guztien lanik ez dago batzuei bukatzeko betarik ez baitie eman.

Dozena bat urte baino gehiagoko historia du Irurtzungo pintura tailerrak. 15 bat dira pintura teknikan trebatzen ari direnak. Bat

## Ura pintatuz



ez beste, guztiak emakumeak dira. Askok urte mordoan daramate margotzen eta haien eskarmentua eskertuko dute hasi berriek. Sartu irteerak badaude ere, antzeko margolari kopurua biltzen da ikasurtertero tailerrean.

Maiatzean despedituko da ikastaroa. Asteazkenetan (19:00etatik 20:30era) eta ostiraletan (15:30etik 17:00etara) biltzen segituko dute. Eskarmentu gehien dutenak, gainera, kultur etxean dagoen tailerrean nahi dutenean joaten dira.

## Lazkoz finalera

[www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu)

Atari horretan eskuratu daitezke finalerako sarrerak.

**M**artxoaren 23an jokatu da Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala. Anaitasuna kiroldegian ariko den zortzikotearen barruan dago Eneko Lazkoz etxarriarra (424). Harekin batera, kantuan ariko dira Julio Soto (467), Xabier Silveira (440), Aimar Karrika (391,5), Erika Lagoma (436), Jon Barberena (426), Eneko Fernandez (401,5) eta Oskar Estanga (400,5).

Iruñerako txartela lortzen azke-

na Aimar Karrika (391,5 puntu) izan zen, Elizondoko finalerako irabazita. Hantxe arituz bertsotan Oier Lakuntza. Finalerako txartelak jokoan, presioak saioapa la eginarazi ziren protagonistei. Saio gorabeheratsua izan zen eta 6 bertsolarien artean ez zen alde handirik izan. Lakuntzak ezin izan zuen gora egin eta 5. sailkatu zen (373).

### Sakana

Nafarroako Bertsolari txapelketan 3 bertsolari sakandar aritu dira. Eneko Lazkozek bere 3. finala jokatu du. Beste biei dagokienez, dozena bat urte lehiaketatik kan-

po egon ondoren, Josema Leitza sasoi betean bueltatu da. Finalerditan sartzea lortu zuen eta 8. puntuazio onena lortu du. Arbizuarrak Iruñeko finalean ariko litzateke baldin eta finalerdiko saio bakoitzeke irabazleak ez balu finalerako zuzeneko txartelirik lortuko. Oier Lakuntza, berriz, finalerdietan 16. postuan gelditu da.

Bertsolariez gain, martxoaren 3an Etxarri Aranatzek bigarren final erdia hartu zuen. Kultur etxea bete egin zen eta saio aparta izan zen, han aritu baitziren finalean kantatuko duten bertsolarien erdiek.



MARTXOAK 17, IGANDEA • 17:00 ANTZERKIA  
**PRINTZEA ETA AHATEA**  
GORAKADA

10ita KULTUR CENTRUA  
Frontoiko zeharbidea, z.g. 31800 • Altsasu • 948564272 • lortia@altsasu.net • www.facebook.com/lortia

MARTXOAK 16, LARUNBATA • 20:30  
**ACAPELEANDO B VOCAL**

2010ean New York eta San Franciscoko a capella musika jaiak irabazi zituztenetik taldearen nazioarteko bilakaera geldiarazi izan da.

KONTERTUA

www.facebook.com/lortia

Juliette Binoche  
5€  
**ELLAS**

ELLAS  
OSTIRALA IGANDEA  
15 21:45 17 20:00

LUCHA SUENO ESPERANZA AMOR  
5€  
**Los Miserables**

LOS MISERABLES  
OSTIRALA IGANDEA  
15 22:00 17 20:10



## G

asteko >> : eguraldia

	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala
euria: 16%	euria: 93%	euria: 78%	euria: 70%	euria: 53%	euria: 30%	euria: 35%	
Min: 2 Max: 10	Min: 6 Max: 8	Min: 1 Max: 8	Min: 1 Max: 8	Min: 1 Max: 11	Min: 5 Max: 14	Min: 6 Max: 12	

## : temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	17.09	-2.1	58.1
Altsasu	15	0	68
Aralar	7.7	-7.6	-
Urbasa	11	-3	42.4

## : ilargiaren aldia>>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
	☾	☽	☾	☽
	19	27	3	10

# KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

## KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

## publizitatea hedabideak

- Hedabide propioak: Guaixe, Belexe eta guaixe.net
- Aholkularitza: beste hedabideetan publizitatea jartzeko
- Gehigarri tematikoak
- Publilerportajeak
- Bannerrak, iragarkiak eta kuñak egitea
- Gida komertzialak
- Belexeguaixe txartela: 84 negoziok kolaboratzen dute deskontu eta eskaintzak emanez
- Iragarki Laburrak

Guaixe KOMUNIKAZIOA

Foru plaza 23-1  
31800 Altsasu (Nafarroa)  
948 564 925/948 562 107

# >> 11

# galdera

## Ana Morales

Coach

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



Elkarrizketa osorik: [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

## Guaixe erakusleho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Bilatu Belexeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakuslehoetan

Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan Guaixe egon den komertzio baten izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo Bierriken bulegora ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea

**1.- Zer da coaching-a?**  
Coaching-a bizitzan zerbait aldatu nahi dutenei egiten zaien laguntza pertsonalizatua da. Aldaketa horiek kanpotik edota barrutik egin daitezke. Pertsonak norberaren potentziala ezagutzeko eta oztopoak gainditzeko behar dituen baliabideak aurkitzen laguntzen du coach-ak.

**2.- Nola lagundu dezake?**  
Coach-ak pertsonekin lan egiten du. Hazkunde pertsonalean lan egiten du. Enpresa munduan ere lan egiten du, baina atzetik pertsonak daude. Pertsonaren eragina oso garrantzitsua da; pertsonak bere baitan sinistu behar du, eta baliabide guztiak ezagutu behar ditu, ordura arte ezagutzen ez zituenak. Pertsonak nahi duena lortzeko behar duen giltza aurkitzen laguntzen diogu. Ezinezkoa ikusten duena zinezkoa bihurtzen da eta norberarengan sinesteak botere mugagabea ematen du.

**3.- Krisiarekin coach-aren laguntza eskatzen dutenen pertsonen kopurua handitu da?**  
Bai. Krisia dela eta jendea lana bilatzeko laguntza eske etortzen da. Azkenean, gauzak modu berdinean ikusten eta egiten badituzu, ondorio berdinak izango dituzu. Coaching-ak gauzak beste modu batean planteatzen ditu, gauza desberdinak lortze aldera. Ateak irekitzen ditu eta helburu berriak eta desberdinak lortzen laguntzen du.

**4.- Noiz behar du pertsona batek coach bat?**  
Mugako egoeretan; beste ezer egin ezin denean. Aldatu behar duzu, beharrezkoa da aldatu nahi izatea, prozesuan inplikatzeko.

**5.- Zeintzuk dira pertsonen ohiko buruhauste edo arazoak?**

Nire helburua norbanakoen gai pertsonalak lantzea da. Emozio-adimenean edo emozio-boterearekin lan egitea. Gai asko izan daitezke: familiar harmonia edo egonkortasuna bilatzen dutenak; bikote arazoak gainditu nahi dutenak; lana bilatu; erabaki garrantzitsu bat hartu aurretik laguntza behar duenak... Jende guztiak botere mugagabea dauka eta nahi duguna lor dezakegu. Baina, batzuetan, gida bat behar dugu, laguntza.

**6.- Nola da prozesua?**  
Galdetegi bati erantzutea eskatzen dut. Izan ere, izan daiteke pertsona horrek patologia jakin bat duela eta beste laguntza mota bat behar izatea. Galdetegiaren bidez jakin dezaket laguntzeko aukera dudana. Orduan, bere bizitzan hausnartzen dugu. Helburuak finkatzen ditut eta lanean has gaitezke. Prozesuan erremintak eta teknikak ditugu, baina pertsona bakoitzak sentimendu eta emozioak modu batean barnatzen ditu eta bere prozesu pertsonala behar du.

**7.- Psikologo eta coach baten arteko desberdintasunak zeintzuk dira?**  
Askotan nahastu egiten dira. Psikologoak iraganera jotzen du eta zergatiaz galdetzen du. Ulertzen saiatzen da eta pazienteari ulertarazten dio. Psikologoak pazientek dituzten eta patologiek lan egiten du. Coach-ak bezeroekin lan egiten du. Bere bizitzan aldaketa bat nahi duen jendearekin lan egiten du, baina ez du patologiarik, sintomak baino. Etorkizuna aldatzeko orainaldian lan egiten du. Zer edo zertarako galderen inguruan lan egiten du: zer aldatu nahi duzun eta nola

lortu nahi duzun. Hiru eremutan lan egiten da: nor zaren, zer nahi duzun eta nola lortuko duzun.

**8.- Nola jakin psikologo bat edo coach bat behar duzun?**  
Oinarrizko arazo bat da. Horregatik nik prozesua hasi aurretik galdetegia egiten dut.

**9.- Nola sortu zen coaching-a?**  
Sokratesek asmatu zuen. Maieutikaren bidez Sokratesek galdera eta erantzunen bitarteko hizketak bultzatzen zituen. Oinarrizko egoera batetik hasi eta helburuak lortzeko aldaketen inguruan kontzientzia hartzeko animatzen zuen. Coaching-a hori da, galdera eta erantzunen arteko hizketaldi bat.

**10.- Zer da emozio-adimena?**  
Adimen-kontzientzia altua duena baliaduna izango dela eta bizitzan gehiago lortuko dutela diote. Baina jakin izan da hori ez dela horrela, eta 146 adimen kontzientzia ez dutenek arrakasta lortu dezaketela, adimen-kontzientzia hori dutenen aurrean. Ez da ahal duenak, nahi duenak baizik.

**11.- Nola bihurtu zinen coach?**  
Betidanik jendea lagundunahi izan dut. Gizarte langile bezala lan egin dut, adimen osasunean, baina oso mugatuta sentitzen nintzen. Aldatzea erabaki nuen. Coach izateko ikasketak egin nituen. Azken finean, lehen egiten nuenarekin oso antzekoa da; baina teknikak ezberdinak dira eta lana eraginkorragoa da. Altsasun bulegoan daukat eta online saioak ere egiten ditut. Iruñera, Gasteizera eta Donostiara ere joaten naiz. Essencoaching.com webgunean edo anamoralescoach.com blogean informazio gehiago dago.